

uk

130. zenbakia / 2007 abenduak 31

TZALE



ESKERRAK MIGIEZINEN AGENTZIETAN EUSKARA SUSTATZEKO KANPAINA MONETAN PARTE MARTU DUTENEI

- Areata inmobiliaria: Basagoti etorbidea 45, 48991 GETXO
- Inmobiliaria Egurrola: Ibaiondo kalea 3, 48930 GETXO
- Inmobiliaria Llanos: Ainguraren etorbidea 4, 48993 GETXO
- M & Mi: Gehala kalea 3, 48930 GETXO
- Inmoenus: Basagoti etorbidea 49, 48991 GETXO
- Eginkari: Basagoti etorbidea 55, 48991 GETXO
- Egoitza: Algortako etorbidea 86, 48991 GETXO



BUSCAS CASA
edo
etxe bila
zabiltza?



Hizkuntza aholkularitza Getxoeko saltokian
Asesoramiento lingüístico al comercio getxotarra
94 415 2252 • gehi@getxo.net

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Izotzezko eskultura, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Usategi parkea.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Jose Navarro *Navarito*.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Antzinako jostailuak.
28. ARGAZKIA. Elurretan Portu Zaharrean.
30. BERBETAN. Aitzol Aramaio, Unai Elorriaga.
34. FOTOGRAFIA. Filmaketa Getxon, David Herranz.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Filmak euskaraz bikoizteko.
43. MUSIKA. Konter taldearen lan berria. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Literatura unibertsala euskaraz. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Pou anaiak Antartidan.
46. ELKARRIZKETA. Jose Mari Esparza.

AMAITZEKO

49. NON JAN. Sopelako Larnia jatetxea.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako "Escuela Vasca" 1935, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Aitor Mendiluze, Ander P. Goikoebea.

AZALEAN: Daniel Brühl aktorea Portu Zaharrean (argazkia, David Herranz)



30 Aitzol Aramaio



11 Jose Navarro




34 Filmaketa Getxon



46 Jose Mari Esparza



54 Aitor Mendiluze



16 Sol Marcos



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra

www.renaultleioa.com

Iparragirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA
Tel.: 94 480 46 02 • Faxa: 94 480 42 43



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Ander P. Goikoetxea,
Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bitor Egunroa,
Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itaso Arana,
Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra
Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarten
Topaguneko parteidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

Urte berria

Edadean gora egiten dugun heinean, pertsonok nekez aldatzen gara ikasi genuen guk aspaldian. Hala ere, ikasi, ikasi esaten dena ez omen dugu ikasten eta urtero, urte berriaren hasieran -inertziak jota eta oharkabean- gogoeta bera egiten dugu. Gero laster ahazten dugun gure bizitzak aldatzeko eta hobetzeko gogoia eta asmoa izaten dugu -persona gehienek bezalaxe- urte berrian; ohitura txarrak baztertu, hobeak gure egunerokotasunean txertatu... Urte berriari hasiera ematen diogu guk esku artean darabilzun UK honekin batera. Eta, jakina, gure bizitza onera aldatu nahi dugun moduan, aldizkaria bera ere hobetu nahi genuke. Horixe, Sisiforen biktimak ere bagarela!

Urte berri on! ✓

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

aipagarria > euskal selekzioen alde



Euskal Herriko Selekzioen Aldeko Iritzi Taldeak (ESAIT) manifestazioara deitu zuen hilaren 29an Bilbon eta honi babesa emateko hain zuzen ere, hainbat lagunek agerraldia egin zuten Getxon egun batzuk lehenago.



ALGORTA, 2007KO ABENDUAREN 26A

Izotzezko eskulturak / Ez da Errusia, ez da Islandia, ez da Ipar poloa... Getxo da! Gabonetako oporraldian izotz eskulturrez atondu zituen Getxoko hainbat kale Stéphane Nabti artista frantsesak. Horrelakoak Getxon bakarrik gerta litezke! Leizko eskulturak zelan egiten zituen ere ikusi ahal izan zuten bertaratutakoek, motozerra eta esku-tresnak erabiliz 3 ordu behar izan zituen. Alabaina, izotza ur bihurtzeraino desagertzen da eta Nabtik egindako Olentzero, Errege, izurde eta arranoa ere hala deuseztatu ziren. Antolatzaileen esanetan ekimenaren helburuetako bat Getxo eta herritarren artean nortasuna bultzatzea zen; inuzenteak gu, argazkikoa arranoa da, baina ez espero genuen arrano beltza! Arrano zuria izan zen... ○ / Argazkia: **Asier Mentxaka**

ERANDION
berbalagun

Ikasten dabilzanekin berba egiteko...

...ordu bete astean, bai?

Euskalduna bazara, emaiezu laguntza; eskertuko dizute-ta!

ANIMA ZAITEZ!!

Tel.: 94 467 27 81 (16.00etatik aurrera, Astialdearekiko atazagunera)
658 70 93 32 (Leire)
e-maila: berbalaguna@gmail.com
helbide postala: San Jeronimo 14 behea • Alzaga

ERANDIO ELIZATEKO LIBALA

Logo of the Ayuntamiento de la Antiguísima de Erandio

Logo of the Ayuntamiento de Erandio

Logo of BFA DFB

[lehen]



GETXOKO UDAL LEIBURUTEGIA

[orain]



ASERMENTIXAKA

Iraganez doa denbora* beti / USATEGI PARKEA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > bata eta bestea



Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Irudiak azaltzen duenaz harago begietan kontzeptu bat bakarra dago. Argazkia aztertuz zintzo, alboz albo, ispilua ote den zalantzatan nago.

2

Ikusi nahi ez bada, begiak berdin du, baina berdin ikusten ezin ahalegindu: batak garbitu eta besteak zikindu, berdinak, baina ezin litezke berdindu.

3

Batak nahi du bestea zertan den azaldu baina besteak ezin denborarik galdu. Batak monumentuen lekuan dihardu eta monumentua besteak behar du.

* Doinua: *Markesaren Alaba*

Uribitakoran parte hartu nahi duzu? Bidaliezaguzu atal honetan agertzea nahi zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

Getxoarte 2007

dokumentala > *Getxo: akordaten naz* dokumentalaren estreinaldia

Ezkerretik eskuinera: Fredi Paya, Paulo Errazkin, Juan Cardas, Juan Anton Zabala eta Aitor Gisasola Behean, Kasinoan bildutakoak dokumentala estreinatu baino lehen eta ondoren



UK aldizkariak Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin ekoiztitako *Getxo: akordaten naz* dokumentala estreinatu zen abenduan Algortako Kasinoan. Aitor Gisasolak eta Fredi Payak egindako lan honetan, Getxo eta getxoztarren bizimodu eta berba egiteko erari buruz aritzen dira inguruko hainbat gizon emakume. Jaiak, gerra garaia, baserri lanak, portu zaharra... herriko historiatik bidaiatzeko aukera paregabea ematen digu. Kontakizunak ilustratzeko, garai bateko bizimodua erakusten duten argazkiak erabili ditu Gisasolak. Kasinoko areto nagusia txiki gelditu zen estreinaldian; izan ere, jende andana hurbildu zen, bere herriko historia eta berbei buruz gehiago jakin guran. Gainera, dokumentalean parte hartu dutenei omenaldi xume bat egin ostean, luntxa izan zen amaieran. Asko begiak bustita zituztela irten ziren Kasinoetik, izan ere, pasarte hunkigarri asko ditu dokumentalak. ○



saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
280808 Getaria
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

erakusketa > auzotarrek egindako Olentzeroen erakusketa Leioan

Erakusketan ikusi hal izan den Olentzeroetako bat

Olentzero gure etxeetatik pasa eta mendira alde egin du jada. Batzuentzat opari pila ekarri ditu; beste batzuei aldiz, familiartean egon eta jaki gozoak dastatzeko aukera ezin hobea eman die. Datorren urtera arte ez dugu bere presentziak gozatuko. Hala ere, Kultur Leioan, herriko elkarte eta ikastetxeetako lagunek egindako Olentzero panpina erakusketa zabalik egongo da urtarrilaren 7ra arte. Gure Ohiturak Dantza Taldea, Berbalamiñe Euskara Elkarte, Kurkudi eta Epi y Blas elkarrekin parte hartu dute, beste askoren artean. Bakoitzak Olentzero berezi bat sortu du material eta teknika ezberdinak erabiliz. Goizeko 9etatik gaueko 9etara egongo da zabalik. Honez gain, beste ekintza batzuk antolatu ditu Udalak urtea ondo hasteko. Urtarrilaren 4an umeei zuzendutako antzerki emanaldia ere egongo zen Getxo eta Barakaldoko antzerki eskolen eskutik. Gainera, ipuin kontalariak izango dira hilaren 2an eta 3an. ○

euskara > jakin bai baina erabili ez!

Kaleko elkarrizketen %14,2 euskaraz izan ziren 2006an

Ahozko erabilera izan da Soziolinguistika Klusterraren Euskal Herriko Kale Erabileraren V. neurketaren ardatza. “Zenbat erabiltzen da euskara kalean?” galderari erantzuten saiatu dira, baita lortu ere. Muga administratiboak gaindituz, Euskal Herri osoko datu kuantitatiboak jasotzen saiatu dira. Oraindik minoritarioa bada ere, euskara gero eta gehiago erabiltzen da; kaleko elkarrizketen %14,2 euskaraz izan ziren 2006an. Hala ere, erabilera ez da ezagutzaren erritmo berean hazi, eta gainera, ezagutzaren hazkundearen erritmoa erabilerarena baino bizkorragoa da. Haurren presentziak nabarmen eragiten du euskararen erabileran. Bestalde, zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara. Sexuaren arabera, emakumezkoek gizonzkoek baino erabilera-maila hobek azaldu dituzte. ○



“Kalera ardo bat hartzen irten eta bata eta bestea zirikatzen ibiltzen naiz beti” dio Navarritok

Jose Navarro Navarrito > Ugeraga Kirol Elkarteko bazkidea

Andaluzia aldetik Sopelara etorri zela 25 urte baino gehiago igaro badira ere, hegoaldeko doinu alaia nabaritzen zaio oraindik Jose Navarriori berba egitean. Malagarra da bera, baina ondo baino hobeto moldatu zen hasieratik Uribe Kostan: “Hona etorri eta lau egunetara beharreen nengoan”. 1980. urtean sortu zenetik, Ugeraga Kirol Elkarteko bazkidea da eta herrian gehien gustatzen zaionari buruz galdetzean azkar erantzun digu: “Hemengo kirola. Ugeragako futbol zelaian egoten naiz beti”. Larrabasterra inguruan oso ezaguna eta maitatua da Navarrito: “Ez dakit zergatik den baina jende guztia hurbiltzen zait; agian oso maitekorra naizelako izango da”. Ordu asko egoten ei da futboleko ibiltzen diren gazteei laguntzen: “Gazteei oihuka ibiltzen naiz beti; oso gustuko dut hauen artean egotea”. Alferrarena egitea baino, nahiago du hau konpontzen eta bestea laguntzen ibiltzea. 63 urte ditu, baina sasoi dago: “Egon beharko”. Bihotza Malagako Futbol taldea eta Athleticean artean banatzen du, baina animatzerako orduan argi dauka: “Ugeragako neska-mutilak animatzea nahiago dut. Ni ez naiz San Mamesera joaten, nahiago dut hemen gelditu”. Bihotz handiko gizon txikia da Navarrito eta auzotarren esker ona irabaztea lortu du: “Kalera ardo bat hartzen irten eta bata eta bestea zirikatzen ibiltzen naiz beti”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografía**
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antigua Golf - Getxo
Tf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Kartelak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
enmarkaketak •



Punta Begoñako galeriak eta hotela

Azterketa baten arabera **galeriaren egitura oso hondatuta** ei dago eta **Barcelo hotel-sareak guztizko eraispina proposatzen du**; horrez gain, eskatutako **HAPOren 5 aldaketak** onartu ditu Udalak

Hotel Barcelo Getxo izenagaz zabalduko lituzke ateak 2010ean Punta Begoñako galeriak eta goi aldea hartzen dituen 5 izarreko luxuzko hotelak. Hori gauza dadin hainbat baldintza onartu behar dituzte lehenago; batzuk dagoeneko onartuta daude. Horrez gain, galerien egoera txarra dela eta bertan behera botatzea eta "berdin-berdinak" berriro altxatzeko proposamena onartzeko dago.



Punta Begoña galerien gaur egungo argazkia

Aurreko zenbakian labur azaldu genuenez, Arriluzeko pasealekuan dauden Punta Begoñako galeriak botatzeko asmoa du Barcelo hotel-sareak. Labein-Tecnalia zentro teknologiko pribatuari eskatutako ikerketa batean oinarrituz, proposatu du hotel-sareak galerien guztizko eraispina. Euskal Herriko zentro teknologiko handienetakoa denaren txostenak ondorioztatu du Ricardo Bastida arkitektoak diseinatutako (1918) galeriek ez luketela jasango lanik txikiena ere, "berdin-berdinak" eraikitzeke helburuaz, hobe dela guztiz botatzea. Alabaina, kultur ondare izendatua eta, beraz, babestuta dagoen eraikina da eta eraisteko baimena ematea Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dago. Momentuz, Aldundiak ez du bere erabakiaren gaineko informaziorik eman. Jakin ahal izan dugunez, Aldundia bera Labein fundazioko bazkide da, horrenbestez, baliteke ez iruditzea ezegokia Labeinen ikerketan oinarrituz Barcelok egindako proposamena. Ostera, proposamenaren kontra agertu da Bizkaiko Arkitektuen Ondarearen Batzordea; euren

iritziz, kontserbatzeko eta mantentzeko baliabide tekniko baliagarriak daude eta horregatik galerien deusezte lekarkeen edozein eskusartzeren kontra agertu dira. Esan legez, Aldundiarena da azken berba eta momentuz ez du ahoa zabaldu.

Bestalde, Barcelo hotel-sareak egindako eskaera batzuk bete ahal izateko, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) aldatzea onartu du Udalak, EAJ, PP eta PSE alderdien aldeko botoakaz, EBk kon-

«Bizkaiko Arkitektuak galeriak eraistearen kontra agertu dira, baliabide tekniko baliagarriak daudela uste dutelako»

tra bozkatu zuen. HAPORI egindako aldaketak ondorengoak dira: hotelaren lurrazpian egitekoa zen parkinga "Campa del Loro" zelaian egitea, 1.500 metro koadro gehiago ematea hotelari talasoterapia zentroa (spa) egiteko, babestutako eraikinetan

bakarririk terraza estaliak eraikigarriak diren metro kopurutik kanpo geratzea, mozorro-tutako tximinia bat eraikitzea-edo Kirol Portuko biribilgunean, hoteleko aireak irten daitezten (azken hori ez dugu egiaztatuta). Amaitzeko, galeriak botatzearen inguruan Getxoko alkate Imanol Landak Aldundiaren erabakia itxarongo duela adierazi du. Bestalde, "azken hamarkadako inbertsio pribatu garrantzitsuena" dela gogoratu du Landak, eta "Udalaren poltsikotik euro bat jarri gabe". Azaldu duenez, "erosteko ahalmen handia duten bisitarien gune enakargarraren artean" jarriko du Getxo. ○

Datu batzuk

- 2008ko otsaila-edo: lanen hasiera
- 2010 erdi aldera: zabalduko ditu ateak
- 40 milio eurotik gora: aurrekontua
- 5 izar: luxuzko hotela
- 50 urte: Barceloren ustiapen-epea
- 300.000 euro/urteko ordainsaria Udalarri

Ordaindutako etxeko-langileak ohi legez emakumezkoak dira, eta bertokoak



Getxoko etxeko-langileen %36,2 etorkinak dira

Getxon etxeko lanak egiteko behargin bat ordaintzea lan-jarduera garrantzitsua dela kontuan hartuz, ogibide horren egoera jakiteko Udalak ikerketa bat egin zuen 2006ko ekaina eta 2007ko urtarilla bitartean. Ikerketaren emaitzak ondorioztatzeko orduan kontuz ibili behar badugu ere (ikerketa-gaiaren jarduna ez delako erraz antzemangarria eta jasotako informazioaren zati bat enplegu-emaileen bidez jaso delako), besteak beste hurrengo datuak eman dituzte: Bizkaiko udalerrien artean Getxo da etxeko-langileak izateko tradizio luzeena daukana, lehen etxeko-langileak ordaintzea elite ekonomiko bati lotzen bazitzaion, gaur egun familia getxoxtarren ia heren batek egiten du, 9.317 familiek, hain zuzen. Etxeko-langileon generoaren gainean zalantzarik ez dago, %98,7 emakumezkoa da. EAEn egindako gainerako azterlanetan antzeman denaren kontra, Getxoko

etxeko-behargin gehienak bertokoak dira (%63,8) eta 32 urtetik gorakoak; gainontzeko %36,2 etorkinak dira, gehiengoa hegoaldeko amerikarrak, eta 35 urtetik beherakoak. Alabaina, barneko etxeko-langileen jatorriari erreparatuz, guzti-guztiak dira etorkinak. Bestalde, enplegu-emaileen perfila ondorengo da: %53k etxetik kanpo lan egiten duela hartzen ditu etxeko-langileak, ia %27k pertsona nagusiak zaintzeko, eta ia %21ek haurrak jagoteko.

Lanbide honen gaineko dekretuaren eskaerak eta langileen zein enplegu-emaileen horren gaineko ezagutza ezak oinarritzko lan baldintzak ez betetzeko aukerak areagotzen ditu. Horren albotik hainbat datu eman ditu azterlanak: legezketasunaren barruan, Getxon diharduten 10 etxeko-langileetatik 6 ez daude Gizarte Segurantzaren alta emanda. ○

AURREKONTUETARAKO HARTU-EMONAK

PSE-EE eta EB alderdien aldeko botoakaz aurrera eroandako PP alderdiaren mozioaren arabera, 2008rako kontuen proposamen bat egiteko eta iazkoak ez luzatzeko eskatu zion oposizioak Batzorde Taldeari, hau da, Udalean gutxiengoan agintzen dagoen EAJ alderdiari. Jeltzaleen erantzuna "2007ko aurrekontuak luzatzea legala izango litzatekeela" izan zen; halere, aurrealdintza barik oposizioa hartu-emonak edukitzeko eta negoziatzeko prest badago Udala Batzordeko Taldea ere gertu dagoela jakinarazi zuten. PP alderditik gogoratu dutenez, "iazko aurrekontuak luzatzeak erantzukizun gutxi erakutsiko luke, hainbat proiektu gelditu edo bertan behera lotuko liratekeelako, esaterako: Getxo Antzokia, Aiboako eskailerak...". Horrenbestez, tratuan ibili beharko dute Udalean dauden alderdiek aurrekontuak osatu eta aurrera ateratzeko.

SAKELEKOEN ANTENEN EGOERA AZTERTZEKO

Sakelako telefoniarako antenak eta interneterako azpiegiturak arautuko dituen lantaldea ipini du martxan Getxoko Udalak. Taldearen helburua hau da: "sakeleko telefonia antenen eragiten dituzten kezka eta artegatasuna mahai gainean ipintzea eta arlo honetan Udalak dituen eskumenak finkatzea". Udalean ordezkariak duten alderdiek, Antenas No herri plataformak, telefonia operadoreek, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak eta udal teknikariek izango dute ordezkariak talde horretan. Horrez gainera, estazio radioelektrikoaren isuriak neurtzeko 3 bat sistema edo neurgailu ipiniko dituzte.

LARRAÑAZUBIKO INGURUGIRO ARETOA

Iazko urte hasieran iragarri bagenuen ere, urte amaiera arte ez ditu ateak zabaldu Larrañazubiko zabortege ohiko Ingurugiro Aretoa. Herritarrei zabalik badago ere, oro har eskola umeei zuzenduta dago; aurren Bizkaiko ikastetxeetako 6.700 ume igaroko ei dira bertatik, getxoxtarrak barne.

SAN INAZIO
AUTOESKOLA
1951n SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ileta kalea 1 • ALGORTA

Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Mari Karmen Fernandez > Angel Figueroa presoaren ama

“Zerbait justua eskatzen dudala uste dut, gizatasunez, giza-eskubideen alde egitea”



Sakabanaketaren ondorioz, hamar kartzela baino gehiagotan eduki dute. Irudian, Figueroaren ama

Angel Figueroa (Getxo, 1971) 1994tik dago preso, 30 urteko espetxe-zigorra betetzen. Haurtzaroan izandako sukar gaitz batzuek eraginda-edo epilepsia gaixotasuna duela diagnostikatu diote; hori sendatzeko 2006an garuneko eskumaldean ebakuntza egin bazioten ere, gaixotasunak larriki egin du txarrera. Halere, 92. artikulua ukatu diote.

—Bizi izan duzuen ez da batere samurra, gainera, semearen egoera oso larria da.

—Kartzelaratu zutenetik gaur arte hamaika eragozpen eta larriuneri aurre egin behar izan diegu eta die, Angelek bakarka. Non-baitetik hasteko, 1997an auto istripua izan genuen bera bisitatzera gindoazela, nire ama hil egin zen. Gertatzen zaizuna gertatuta ere, haientzat ez du baliorik; zuk lepo gainean daroazun motxilaren pisuari beste harri bat erantsi diozu. Bazirudien zoritxarren ontzia beteta genuela, baina 2 urtera senarra gaixotu eta handik 3 hilera hil egin zen. Angeli, kostata, baina etortzen utzi zioten, behintzat aitari agur esan ahal izan zion. Baina, begira kontu horretan ere zelan jokatu zuten: Angelek kartzelari bati salaketaren bat jarrita

zion eta gizon hark esan zigun: *“salaketa kentzen badu utziko diogu joaten”*, eta nik: *“bere ama naiz baina, ez nik ezta bere aitak ere ez diogu eskatuko horrelakorik egiteko”*, Aizu! horrelako eskaerei erantzutea gizatasun kontua da, ala ez? 2004an Palentziatik Kordobara eroan zuten. Hango lagunek esan ziguten zerbait arraroa gertatzen zitzaio- la, baina bera ez zen gaixorik sentitzen; patioan denen aurrean krisi larri bat jasan arte. Orduan eskaerak betetzen hasi ginen hemen diagnostiko bat egin ziezaioten, ze Kordobakoek zioten ondo zegoela, eta diagnostikoa bakarrik egiteko ez zela sekula lekualdaketarik onartu. Mila buelta eta beste hainbeste traba gaindituta lortu genuen. Hemendik aurrera gertatutakoan eta jarrita

ko milaka traba eta tratu txarren adibide baten bat baino ez dizut kontatuko, hainbeste izan dira! Bisitaldi batean plastikozko aldagailu bat sartu behar genuen; ez uztearen zergatia galdetzeagatik eztabaida izan genuen kartzelariakaz. Espetxeko zuzendariari deitu zioten eta hark: *“lagunok (kartzelari), zuek zer gura duzue nik egitea?”*, eta haiek sartzen ez uzteko erantzun zuten; Kordobaraino joan eta gero! Gainera, 6 hilerako bis barik zigortu gintuzten. Azkenean ekarri zuten Angel Langraitzera azterketa medikoa egiteko, eta zigortuta geundenez, ezin ikusi. Proba gehiago egin ahal izateko ebakuntza egitea onartu behar zuela esan zioten; ebaluazio edo jarraipen bat egin barik, tratamendua

«Izugarria da ospitaleko ohetik altxatu bezain pronto bilurrak ipinita ikustea»

aldatzen ahalegindu barik, *“ebakuntza onartu ala ez dizugu proba gehiago egingo!”* Erabaki hori hartzea ez da erraza! Ba, oster bere Kordobara. Han krisi larriagoak izan zituen eta berriro ekarri zuten, otsail aldera erabaki behar izan zuen ebakuntza egitea. Proben ostean ebakuntza egiteko sintoma guztiak zituela eta ondo irteteko aukera handiak zeudela esan ziguten. 2006ko maiatzean egin zioten arrisku handiko ebakuntza, dena ondo irten ei zen. Handik 10 egunera alta eman zioten medikuek. Mesedez! Zuzendariengana jo nuen Angelen egoera zela- eta berreskurapen-epaia luzatzeko eskatzera. Batak besteari pasatu zion “pilota”. Medikuek zioen: *“bere ohiko egoitzara joan dadila!”*; eta nik: *“Badakizu nora doan, kartzelara, ez etxera”*. Izugarria da ospitaleko ohetik altxatu bezain pronto bilurrak ipinita ikustea. Ebakuntza hain arrisksuaren ostean zaintza behar zuen, osatzeko gutxieneko lasaitasuna; eskatu genuen Gorlizera edo Basurtora

eroatea, hor presondeg-unitatea dute. Ez. Ospitaletik irten eta gero ikusi genuen lehenengo aldia ikaragarria izan zen, bisitaldia beti laburregi egiten zaizu, egun hartan amaitzeko gogoak izan nituen, hain makal zegoen! Handik hilabetera krisialdi oso gogorra izan zuen, hortik aurrera etengabe izan ditu. Ebakuntza egin ostean krisialdiak desagertu baino areagotu badira, errakuntza baten bat egongo da, ez? *“Ez, agian ez dira krisi epileptikoak...”* zioten. Eta berriro Kordobara, eta krisi gehiago. Han erizaindegira eroan zuten, baina argi lotu dadila: kartzelako erizaindegia ez da gaixoak zaintzen diren lekua, gaixo guztiak batera dauden modulua baino. Medikuek emandako senda-argibide-

«Medikuek ez dute konpromisorik hartu gura, preso politikoa da, baina hori baino lehen gaixo dago!»

ak hiru dira “ondo lo egin, botikak ordu zehatzetan eta kontrolatuta hartu eta lasaitasun handia”. Gaur egun badakit hiruretako bat bera ere ez dela betetzen; botikak desorduan ematen dizkiote, kontrol barik; kartzelan lasaitasuna? bidaiatzea debekatuta behar-ko luke, eta sakabanaketaren ondoriozko lekualdaketak? Gainera, horietako batean mediku-azterketa batera zetorrela lokarri batzuk zirela-eta eztabaidatzeagatik Guardia Zibilak jipoi itzela eman zion; ondorioz, beste krisialdi larri bat. Beste bisita batean krisialdi desberdina, larriagoa jasan zuen: ikusten gintuen baina ez zekien non zegoen, eta konturatzan zen ez zeuden gauzak ikusten zituela. Beldurgarria izan zen, eta esan nien: *“nabi baduzue sar nazazue kartzelara, baina semea oso egoera larrian dago eta ni ez noa”*. Orduan, Ertzaintzari deitu Txagorritxura joateko. Hori ere ez da samurra, uste duzu “hemen-goek” “hobeto” tratatuko zaituztela, baina bazer! Angelegaz joaten uzteko eskatu nien, mesedez, desorientatuta zegoela eta lasaiago egon zedin; ez. Gu 15:00ak aldera heldu ginen ospitalera, Angel 18:00etan! Lehen gauza: *“ezin duzue ikusi, epailearen aginduz”*. Gezurra! Baina ezinezkoa izan zen. Handik Santiagoko psikiatrikora eroan zuten. Han esan ziguten ez zela gaixo psikiatrikoa, neurologikoa baino, eta ezin zitekeela han lotu.

Astlehenean Gurutzetan zuen zita, logikoa Gurutzetara eramatea zen, Txagorritxura eroan zuten; medikuak anbulantzian eroateko eskatu bazuen ere, horretarako hamaika paper bete behar zituztela eta beranduago helduko zirela esanez, furgoian eroan zuten. Ikusi nuenean gurgildun aulki batean zetorren eskuak atzean eta bilurrak jarrita! Krisi baten ostean! Hurbiltzen ere ez ninduten utzi! Gurutzetan 48 orduz izan zuten krisialdia izateko zain, baina ez datoz batek gura duenean! Etengabeko krisiak eta kartzelatik ospitalerako joan-etorriak eta gero, behingoz erabakitzen dute denbora gehiago edukitzea ospitalean krisiak izateko zain, orduan bai, bideoan grabatu eta baieztatzen dute epileptikoak direla. Orain diote garuneko ezkerrean ei duela gaitza, ebakuntza eskuman egin bazioten ere, eta arinago ikusi izan balute ez luketela ebakuntza egingo. Ospitalean dagoenean Angel lasai dago, ertzainak zelatan egon arren, sartzeko trabak jarrita ere, zainduta, botikak kontrolatuta hartzen dituelako. Baina berriro Kordobara!

—Medikuak ez dira gaixoaren alde jartzen? —Medikuek ez dute konpromisorik hartu gura. Behin eta berriz azaldu diet: semea kalean balego ez nuke behar idatziz azterketetarako data zehatzak eta sendatzeko jarraibideak, idatziz ez badaude kartzelakoek ez dituztelako betetzen. Nik hemengo medikuari dio-tsat: zu arduratu zaitetz zure gaixoaz, idatz itzazu jarraibideak, gero betetzen dituzten ala ez, beraien kontua da; esan ere esan diet mediku iritzia emateagatik ezin dietela ezer leporatu, gaixoaren eskubideak babesteagatik egotziko diete ETArekin aldekoak izatea? Gaixoagaz dute konpromisioa, preso badago ere, gaixo dago lehenengo. Medikuek dio beste gaixo bat bezalako dela; baina ez da, Angelek ezin du krisialdi bakoitzean larrialdietara joan, ezin ditu medikuaren esanak bete beste per-sona batzuen mende dagoelako. Epilepsia-gaixoen elkarte batean egon naiz, eta eskain-tzen dieten arreta, lasaitasuna, zaintza, maitasuna etab. ikustea latza da, Angelek ezin dituelako jaso. 92. artikulua betetzea eskatu dugu, ezezkoa eman dute. Beste bi neurologoren iritziagaz berriro ere ahaleginduko gara. Baina denbora ere aurka dugu. Plataforma bat antolatu dugu sinadurak biltzeko, bere egorean aurrean 92.

artikulua emateko atxikimendua eskatuz. Alkateari ere dossier bat eroan diogu. Elizako atekari ere jo ditugu; eurek baztertu den alde dau- denak, giza eskubideak defenditzen dituzte- nak... Hara! Ezin dutela sinatu diote. Ni preso gaixo baten ama legez joan naiz, ez kontu poli- tikoengatik. Hipokresia handia dago, injusti- ziaren kontra ahotsa altxatzea zailegia da bat- zuentzat. Zerbait justua eskatzen dudala uste

«Ez dut penarik eman gura, ezta biktima bezala ikus nazaten ere; jendeak egoera ezagutu eta uler dezan baino»

dut, giza- eskubideen alde egitea, gizatasuna adieraztea. Gaixorik dagoen pertsona bat torturatzan dabilta. Osasuntsu zegoenean, kohe- renteki bere egoera onartzen zuela ikusita, “lasai” irtetzen ginen. Orain oso gaixorik dago eta jendeak ezagutu behar du presoan egoera, eta gaixo badaude egoera askoz txarragoa dela; behin-tzat inork ez dezan esan “ezer ere ez nekien!”. Errazegia da esatea *“zerbait egingo zuen kar-tzelan egoteko”*. Aizu! Oso gaixorik dagoela! Preso politikoa izan arren, Angelena giza-eskubideen kontua da. “Espainia Estatu Demokratikoko” legeak dio gai- xotasun larria edo sendagaitza duen presoari 92. artikulua eman behar zaiola. Zelako ezin- tasuna! Ezin dut lagundu, ez maitasuna ezta lasaitasuna ere eskaini. Ez dut penarik eman gura, ezta biktima bezala ikus nazaten ere, jen- deak egoera ezagutu eta uler dezan gura dut. ○

ALERGIA



ASMA
ERRINITISA
KONJUNTIBITISA

ALERGIETARAKO PROBAK

DR. CRISTIAN AMEZAGA ASENSIO
MEDIKU ALERGLOGOIA
(R.P.S. 103/06)

MEDIKOSTA

IMQ - SANITAS - MAFRE - LAGUN ARO
Algotarka etorbidea 96
48991 GETXO
94 460 98 45

Sol Marcos > Behargintzako Prestakuntza eta Lanerako Txertaketako arduraduna

“2.000 bat lagunek eman dute izena; horietatik 35 eta 45 urte bitarteko emakumeak dira nagusi”

Sol Marcos Leioako Behargintzako langilea da eta udal zentru honen betebeharrak egon gara berbetan. Solek dienez, hiru betekizun nagusi ditu Behargintzak: lan merkatuan bitartekari gisa jardun, prestakuntza eman eta enplegurako tailerrak eskaini. Nork bere enpresa sortu gura badu, aholkularitza ere ematen dutela jakinarazi digu.



Argazkian, Sol Marcos

—Zer funtzio betetzen du Behargintzak?
—Enplegua sustatzeko udal zentrua da Behargintza. Lan bila dauden herritarrentzako arreta zerbitzuzko udalaren bulegoa da. Lan bila daudenak zentru honetan erregistratzen dira eta inguruko enpresa batek behargin bat eskatzen digunean, daukagun datu basean pertsona egokienak bilatzen ditugu. Behar duenari lana bilatzen diogu; merkatuko bitartekotza da egiten duguna. Bestalde, prestakuntza ere ematen dugu. Aurten adibidez, zortzi ikastaro eskaini ditugu: autobuserako gidabaimena, kamioirako, kudeaketarako aplikazio informatikoak... Eta azkenik, hirugarren proiektua daukagu: enplegurako tailerra. Bertan Leioako baserri bat berreraikitzen ari gara. Guztira 28 langile dabilta eginkizun honetan.

—Zenbat jende dago Leioako Behargintzan izena emanda?

—Datu basean 2.000 bat lagun ditugu erregistraturik. Horietatik 35 eta 45 urte bitarteko emakumeak dira gehienak.

—Zein da gehien eskatzen dizuete lanbidea?

—Gehienbat garbiketa lanak egiteko beharginak eskatzen dizkigute enpresek. Zaindariak ere gero eta gehiago: urtero antolatzen dugu zaindari izateko ikastaroa eta %100ek lana lortzen du. Oro har, gaitasun txikiko lanak izaten dira.

—Enpresei zer zerbitzu eskaintzen diezue?

—Herriko enpresekin egiten dugu berba eta gauza bi egiten ditugu: alde batetik, behar dituzten langileak aurkitu, eta bestetik, lanpostu zehatz baterako pertsona prestatu. Jakina, prestakuntza honen ondoren kontratatuko dituztelako bermea eman behar digute.

—Zenbat enpresa sortu dira azken boladan? Norberaren ekimenik al dago?

—Oso gutxi. Gai hau oso txarto dago Leioan. Autoenplegurako ekimenak sustatzeko aholkularitza eskaintzen dugu *BBK Gazte Lambideagaz* daukagun hitzarmenaren bitartez. ○

Berbalamiñe

Ekintzez beteriko urtea prestatu du euskara elkarte leioaztarrak



Besteak beste, txalaparta zein panderoa jotzen ikasteko lantegiak antolatu dituzte

Berbalamiñe Euskara Elkartek kultur ekintza ugari antolatu ditu 2008. urtera begira. Panderoa eta txalaparta bezalako euskal tresnak jotzen ikasteko aukera eskainiko du Berbalamiñek. Horretaz aparte, euskal dantza klaseak ere emango ditu. Euskaraz ere hitz egin baduzu, eta ez baduzu norekin egin, Berbalamiñek talde batekin jarriko zaitu harremanetan euskaraz berba egin ahal dezazun, eta bide batez, lagunak egin ditzazun.

Txalaparta ikastaroa barikuro izango da 17:30etik 19:00etara. Urtarrilean hasiko dira aipatutako eskolak eta ekainera arte iraungo dute. Ikastaroak 60 euro balio du. Duda barik, aukera paregabea da arbasoek deiak egiteko zerabiltzaten tresna samur eta apartekoa jotzen ikasteko.

Panderoa ikastaroa barikuetan ere izango da, baina honako hau arratsaldeko 19:00etatik 20:30era. Aurrekoa bezala, urtariletik ekainera arteko ikastaroa da eta prezio berbera dauka.

Herriko jaietan jendea musikaren eritmoagaz batera mugitzen ikusten baduzu eta eta zeu ere dantzatzeko irrikitan bazaude, euskal dantza ikastaroa antolatu du Euskara Elkartek. Honako hau berriz, martitzenetan izango da 19:00etatik 20:30era. 60 euro balio du ikastaroak.

Aipatu beharra dago ikastaro hauek guztiak Berbalamiñeren egoitzan egingo direla: Iturribide 6, beheko solairua. ○

Harremanetarako: 695 75 31 10
berbalamine@euskalerrria.org

EUSKARAZKO LITERATUR SOLASALDIAK

Otsailetik aurrera euskarazko literatur solasaldiak antolatuko dituzte Leioako Liburutegiak eta Euskara Zerbitzuak. Hilabete zehar liburu bat irakurtzea da asmoa eta egun batean liburuaren inguruan hitz egiteko elkartu. Proposatzen duten lehenengo liburu Uxue Alberdiren *Aulkia elurretan* da.

MUNDUKO IOI-ITURRIEN LEHENENGO SAIKUNTZA-BANKUA

Munduan egingo den ioi-iturrien lehenengo saiakuntza-bankuaren proiektua aurkeztu zuten abenduaren 10ean Bilboko Domine hotelean. ITUR proiektua Tekniker-ik4 teknologia zentroak zuzenduko du eta EHUko Leioako campusean kokatuko dute. ITUR proiektua lehenengo aldiz eta teknologia propioarekin gaur egun dauden ioi-iturrien alternatiba ezberdinak alderatzea ahalbidetuko du. Ioi-iturria da protoien azeleragailua erabiltzen duten azken belaunaldiko zientzia instalazioen oinarria eta ezinbesteko elementua.

AVANZADA GUZTIZ ESTALTZEKO SINADURAK

Avanzadaren auziari “baldintza teknikoaren arabera” konponbidea eman nahian, Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanetan jarriko da berriro ere Leioako Udala. Horretarako bidea eman zuten EAJ eta EB-Berdeen aldeko botoek, azaroaren 29ko udal batzarrean. Avanzada estaltzearen aldeko plataformako kideei berriz, ez zaie nahikoa iruditzen.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

BEST

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hurstab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Ekartera



Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa
Tel: 94 633 81 59

moda gaztea opariak

IRATI

Torreña 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

SAN INAZIO
AUTOESKOLA
1951n SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

LUBERRI
Basolanak S.L.

Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa

DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Zure publikizitatearen hemen
Zure publizitatearen hemen
Zure publizitatearen hemen

94 491 13 37

[erandio]

Markel Valdivielso > argazkilari gaztea

“Pertsonak ateratzea ez dut gustuko,
nahiago dut paisaiak erretratatzeko”



Argazkian, Mikel Valdivieso

Erandioko herritarren artean ezaguna da Markel Valdivielsoren zaletasuna eta egiten dituen herriko argazkiak. Markel 15 urteko gaztea da eta bere kabuz argazkiak egiten ditu aspalditik. Argazki-erreportaiak egiten lan egitea gustatuko litzaiokeela aurreratu digu erandioztarrak.

Markelek bere hastapenak nolakoak izan ziren ekarri digu gogora: “Argazki kamera bat oparitu zidaten eta argazkiak egiteari ekin nion, beste barik”. Jakinminak bultzatuta argazkiak egiten hasita, argazkilaritza gero eta gehiago gustatzen zitzaioela konturatu zela aitortu digu Markelek.

Berak azaldu duenez, batik bat paisaiak bilatzen ditu, nahiz eta noizean behin beste-lako gauzak bilatu. “Pertsonak ateratzea ez dut gustuko, nahiago dut paisaiak erretratatzeko. Erandioko bazterrek ateratzeaz gain, eskulturrei ere argazkiak egiten dizkiet; motibo adierazgarriak bilatzen ditut”.

Gazte erandioztarrak bere kabuz ikasi du argazkiak ateratzen eta ez du inolako ikastarorik egin, nahiz eta etorkizunean teknika gehiago jakitearren baten bat egitea ez du bazertzen.

Gaur egun argazkilaritza zaletasuna besterik ez izan arren, etorkizunera begira argazkilaria izatea gustatuko litzaiokeela adierazi du Markelek, horrela, hainbeste gustatu.

**«Orain hobbya izan arren,
etorkizunean lanbidea
izatea nahi nuke»**

tzen zaion argazkiak ateratzeaz bizi ahal izateko. “Momentu honetan argazkilaritza hobbytzat hartzen dut, baina etorkizunean lanbidea izatea gustatuko litzaidake. Argazki-erreportaiak egiteaz bizitzea izango litzateke politena”.

Bitartean herriko bazter ederrei argazkiak egiten jarraituko du gazteak. ○

Antzerki ikastaroak

Antzerki tailerrak jasotzeko aukera **Kutura Saila** eta **Getxoko Antzerki Eskolaren** ekimenez



Trebatze saioa Getxoko Antzerki eskolan

Antzerkia ikasten hasi gura baduzu aukera ona daukazu, Erandioko Kultura Sailak adin guztietako jendeari zuzenduriko antzerki ikastaroak antolatuta baititu datorren urterako. Uzaroan ikasten bazabiltza ere, jarraitzeko tailerrak eskaintzen ditu.

Getxoko Antzerki Eskolak emango ditu ikastaroak eta jende nahikoa baldin badago, lau talde sortuko dituzte. Honakoak dira taldeen adin tartekak: barikuetan 6 eta 9 urte bitartekoek egingo dute lan; eguenetan, 10 eta 13 bitartekoek; martitzenetan, berriz, 14 eta 17 arteko gaztetxoek; eta azkenik, 18 urte baino gehiagoko helduek astelehenetan edukiko dute ikastaroa.

Eskolak Astrabuduako Josu Murueta

Kulturgunean emango dira eta arratsaldeko seietan hasiko diren bi orduko prestakuntza-saioak dira. Urtarrilaren 14an dute martxan jartzeko data eta ekaineko azken astera arte iraungo du.

Erandion zein herritik kanpo erroldatu-koei zuzenduta daude ikastaro hauek. Hala ere, bertan erroldatutakoek lehentasuna izango dute leku-kopuru mugatua dago eta.

Erandion erroldatuek 50 euro ordaindu beharko dituzte, gainontzekoek oster, 100 euro, eta telefonoz jakinaraziko da tailerretan onartuak izan diren ala ez. ○

Harremanetarako: 94 489 01 40
kultura@erandioko-udala.net

SAN JOSE EGOITZAK ISO KALITATE ZIURTAGIRIA ESKURATU DU

ISO 9001/2000 kalitate ziurtagiria eskuratu du Erandio Goikoako San Jose Udal Egoitzak eraikina bera eta adineko pertsoneri eskaintzen dien laguntza osoko jardunak direla eta. Duela 22 urte sortutako zentro sozio-asistentzial mistoa dugu hau, pertsona balio-urritu zein beste inoren laguntza behar dutenentzat eskaintzen baitu zerbitzua. San Jose egoitzak 59 laguntzatzat dauka lekua, eta horietatik 25 leku inoren laguntza behar duten pertsonentzat dira. San Jose egoitzaren eraikin berean ireki zuen Udalak eguneko zentroa, 2006ko martxoan. 20 leku eskaintzen ditu eta 26 erabiltzaile izan ditu dagoeneko. Etxez etxeko laguntza eta egoitzako egonaldiaren bitarteko baliabidea da eguneko zentroak eskaintzen duena. Horretaz gain, egunean zehar, denbora tarte batean, babes eta laguntza psikiko-fisiko behar duten pertsonentzako zerbitzuak eskaintzen dira.

UDALAK IA 51 MILIOI EUROKO AURREKONTUA EDUKIKO DU 2008AN

Erandioko Udalak 35.761.000 euro kudeatu ditu 2007an eta 50.902.000 euroko aurrekontua onartu du datorren urterako. “Aurreikusitako inbertsioek” eragin dutela %42ko igoera nabarmen hori adierazi dute udaleko iturriek: 2.020.000 euro Ollaga eta Etxegorri berriztatze; 3.500.000 euro Altzaga-Landa errepidea egiteko; 2.200.000 euro Tartanga biziberritze; 6.000.000 euro Plaiabarriko D Sektorea urbanizatzeko; 1.090.000 euro Erandio Landako Andra Mari elizaren inguru berria antolatze; 300.000 euro skate pistak egiteko; 640.000 euro Altzagako liburutegi berria konpontzeko eta 140.000 euro haur-ekolen kanpoaldea urbanizatzeko. Era berean, 500.000 euroko partida jarri dute herriko auzoen arteko lotura egingo duen autobus zerbitzua jartzeko.

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

LIZAR BEGOÑA MADARIAGA DA POSTAL LEHIAKETAREN IRABAZLE

Sopelako Udalak antolatutako Olentzerori buruzko postalaren lehiaketak inoiz baino arrakasta handiagoa izan du aurten. Udaleko iturriek jakinarazi dutenez, 118 neska-mutilek bidali diote idatzia Olentzerori. Gehienak sopoloztarrak izan dira (%85); hala ere, Urduliz, Barrika, Plentzia, Armintza, Algorta, Areeta, Berango, Astrabudua eta Erandiokoek ere parte hartu dute. Postal gehienak arkatzez eginkoak izan dira, kolore bizi eta ugarikoak, eta bakar batzuk akuarelaz. Marrazki guztietan ikus zitezkeen Olentzero opariz betetako poltsa handi batekin. Olentzero surfariak ere agertu dira, skaterrak edota parapentean hegan zebiltzanak. Horrenbestez, inoiz baino zailagoa izan da epaimahaiaren lana. Azkenean, 10 urteko Lizar Begoña Madariaga sopoloztar neska aukeratu dute 2007ko postalaren irabazle. Helene Pardo Ajenjo izan da bigarrena, 11 urteko urduliztarra. Iazko irabazlea, Ivan March Calvo, 11 urteko sopoloztarra hirugarren sailkatu da.

JAIÖBERRIENTZAKO MASAJE IKASTAROA

Jaioberrientzako masaje ikastaroa antolatu du Udaleko Kultura Sailak datorren urtera begira. Kultur Etxeko aretoan eskainiko dira ikastaroak, 3. solairuan, arratsaldeko 17:00etatik 18:30era. Sei saiotan banatuko da ikastaroaren edukia. Urtarrilaren 11koan, barikuan, aurkezpena izango da. Hilaren 18koan zangoetako masajea izango dute hizpide, 25ean sabeleko eta bularreko masajea, otsailaren 1ean beso eta aurpegikoa, otsailaren 8an bizkarrekoa, eta azkenik, otsailaren 15ean, luzaketa saioak egingo dira. 7 eta 10 haur bitartean izango dira ikastaro bakoitzean, gurasoek lagunduta.

Harremanetarako: 94 406 55 19
hall-kulturala@sopelana.net

Mural berria

Ander Deuna ikastolako ikasle eta irakasleek baldosa eta basaz osatutako murala egin dute



Muralaren egileak eta atzean euren lana

Ander Deuna ikastola aspaldidanik buztinez eta baldosaz apaintzen hasi ziren bertako ikasle eta irakasleek. Oraingoan 25 metroko murala eraiki berri dute, ikastolan dagoen muralik handiena. Ume txikiaren eremuan dago eta horregatik gehienbat haur-irudiak ikus ditzakegu: tximeletak, loreak, ilargia, trena...

Bi urteko lanaren emaitza da aipatutako apaingari berria. Lehenengo urtea piezak egiten eman zuten eta bigarrena, berriz, murala muntatzen. Pieza nagusiak ikastolako lantegian basaz egindakoak dira, eta betetze-koak, koloretako ohiko baldosak.

Guztira hamar bat lagun egon dira horma lantzen nahiz eta egunero lau pertsona baino ez ibili. Muralaren diseinuari dago-kionez, Agurne Garciak egin du; buztinezko pieza nagusiak, ordea, Blanca Domingezek.

Ikastolako andereñoek adierazi dute-nez, murala dagoen horma oso zikina da eta urtero amek hura margotu behar zuten. Horri konponbidea eman nahian, horma guztia beteko zuen murala egitea bururatu zitzaion. Jakina, hori egin aurretik, antzeko horma txikiago batean probatu zuten eta emaitza ona zela ikusirik, lanari ekin zioten. ○

Eunate Agirre > Europako bodyboard txapelduna

“Batuetan egoera beldurgarrietan zaude, baina hori menperatzen ikasi beharra dugu”



Argazkian, Eunate Agirre

Azaroaren 26an Eunate Agirre sopoloztarrak Europako txapeldun sailkatu zen Agadirren (Maroko) jokaturako Zirkuituko azken probaren ostean. Europako Zirkuitua txarto hasi arren, egoerari buelta ematea lortu zuen Eunatek: “Urte hau oso zaila izan da; txarto hasi nintzen bai Europako bai mundu mailako probetan, baina gorantz joaten hasi nintzen, eta azkenean garaile ateratu naiz. Txarto hasi eta azkenean ondo bukatu izanak betetasun handia eragiten dit”.

Behin Europako txapelketa irabazita, kirolariak aitortu duenez, bere helburua mundu mailako zirkuituan gorantz egitea da: “Aurten mundu mailan zortzigarren postua lortu dut eta hori hobetzea da nire helburua”. Horretarako, gogor entrenatzen jarraitu behar duela jakitun da Eunate, bere ustez “gauza asko” baititu ikasteko. “Jokoan dagoen bakarra ez da teknika, psikologikoki ere gogorra da eta hori menperatu beharra daukat lanaren bitartez”. Horrenbestez, hobetzen joatea eta lehenengo postuetan

ipintzea espero du bodyboardlariak.

Gustukoaren duen olatuaz galdeturik, Sopelakoa, Mundakakoa edota La Centralakoa aipatu dizkigu: “Sopelako olatua beharbada ez da onena izango, baina lagunakaz etxean uretan egotea onena da”.

Txikitatik hasi zen sopoloztarrak olatuak hartzen; 13 urte gaz, berriz, babesleak edukitzen hasi zen eta 16 gaz, bere lehenengo txapelketan parte hartu zuen. Bere manio-brarik gustukoena “tuboa” egitea dela esan

«Txarto hasi eta ondo bukatzeak betetasun handia eragiten dit»

digu Eunatek: “zu eta olatuaren arteko sintonia hori oso polita da”.

Uretan eta olaten artean momentu latzak ere bizitzen direla aipatu du kirolariak: “Batuetan kolpeak hartzen ditugu eta egoera beldurgarrietan murgildurik aurkitzen zara, baina hori menperatzen ere ikasi beharra dugu”. ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

**LAIKAK
Taberna**

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

BEGIRALE IKASTAROA URTARRILETIK AZARORA

1990eko azaroa baino lehen jaiotako gazteei zuzendutako begirale ikastaroa antolatu du Kultur Etxeak. 2008ko urtarrilaren 19an hasi eta urte bereko azaroan amaitu egingo da, eskolak bariku eta zapatuetan izango direlarik. Honez gain, asteburupasako lau txango egingo dituzte. Ikastaroa euskaraz izango da eta Gaztetxo Eskolak emango du. Parte hartu nahi duenak, Santa Anako Kultur Etxean eman beharko du izena urtarrilaren 11 baino lehen. Berangon errodatuek 300 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 350 euro. Aldi batean zein epeetan ordaintzeko aukera egongo da.

ESTOLDA ETA ZABOR TASAK MERKEAGO

Berangoko Udalak %20ko beherapena egingo die estolda eta zabor tasetan urtean 14.000 euro baino gutxiago irabazten dituzten berangoztarrei. Bikoteei dagokienez, 24.000 eurotik beherakoak izan beharko dira urteko irabaziak. Neurri hau 2008ko urtarrilaren 1ean jarri da martxan. Ezker Batua-Berdeak, EAJ eta EA alderdiek bozkatu dute beherapenen alde; PSE eta PP aldiz, abstenitu egin dira.

URTARRILEKO EKINTZAK

Etxeoko gazteenek ez dute aspertzeko astirik izango Gabonetako oporretan. Izan ere, egitarau oparora prestatu du Kultur Etxeak. Urtarrilaren 2tik 5era Ludoteka eta Ludokluba martxan egongo dira eta hauetan, hiru dimentsiotako Belena egin eta Brotxa lodiz margotzeko tailerlean parte hartzeko aukera izango da. Bestalde, Erregeen opariak egiteko tailer berezia antolatu dute Gaztelekuko lagunek. Azken hauek, Erregeetako kotiloiarekin gozatzeko aukera izango dute urtarrilaren 4an, arratsaldeko 17:30etik aurrera. Honez gain, urtero bezala, Erregeak Berangora helduko dira urtarrilaren 5ean, arratsaldeko 7:30ean.

Bizkaiko Txirrindularitza

Eskolen saria jaso du **bigarren urtez** Berangoko Txirrindulari Elkarteak



Taldeko kideak denboraldiaren aurkezpenean

Berangoko Txirrindulari Elkarteak Bizkaiko Txirrindularitza Eskolen Lehiaketaren saria jaso zuen abenduaren 13an, Bizkaiko Txirrindularitza Federazioaren eskutik. Bilboko Barcelo Avenida Hotelean jaso zuen saria Javier Garcia Troncoso lehendakariak.

Aurten, 6 eta 16 urte bitarteko 52 neska-mutil daude eskolan, nagusi, kimu, haur eta kadete kategorietan. Azken hauek, txapelketa ofizialetan parte hartu dute lehenengoz 2007an eta oso pozik daude lortutako emaitzekin. Hala ere, txirrindularitzarako zaletasuna bultzatzea eta gazteek ondo pasatzea da eskolaren helburu nagusia. *“Aisialdi*

talde bat gavela esan daiteke. Mendi-irteerak, asteburuko txangoak... ekintza ezberdin asko egiten ditugu, gure ardatza bizikleta bada ere”, argitu digu Eduardo Aguinaco eskolako kideak. Giro polita dago gazteen artean eta hori ezinbestekoa da: “Txirrindulari onak trebtzeaz gain, adiskidetasuna eta elkartasuna bezalako baloreak bultzatu gura ditugu”. Saria jasotzen duten bigarren urtea da aurtengoa: “Federazioak antolatzen dituen gauza guztietarako kontuan hartzen gaitu eta hori oso garrantzitsua da guretzat”. ◊

Harremanetarako: 607 40 03 17

Arkote Arraun Taldea > Urrezko ezteiak: 50. urteurrena

“Arkote aurrera atera bada, borrokatu duen talde txiki bati esker izan da”



Jon Garaizar, klubeko lehendakariordea

Ez dira 50 urte egunero betetzen. Hori dela eta, urtebetetzea behar den bezala ospatzea erabaki du Arkote Arraun Taldeak. Abenduaren 8an egun handia izan zen; hala ere, ospakizunek 2008ko otsailera arte jarraituko dute. Jon Garaizar klubeko lehendakariordearekin batu gara urtebetetzeaz eta taldeaz berba egiteko. Buruhauste asko ematen dizkion arren, klubaren alde edozer egiteko prest dago Jon.

—Zenbat pertsona ditu taldeak aurten?
—Urte polita da aurtengoa Arkoterentzat. 90 pertsona inguru daude, beterranoak kontuan hartuta. Kategoria guztiak ditugu, infantil, kadete eta senior, emakume zein gizonezko. Seniorreko mutilak bi taldetan banatuta daude; RC2 eta ACT ligetan parte hartzen dute. Pasa den denboraldian ez ziren gauzak oso ondo atera lehenengo taldearentzat, azken paladan libratu ginen. Aurten badakigu akatsak non dauden eta errazagoa izango da hauei aurre egitea.

—Eta jarraitzaileei dagokienez?
—Herri honetan ez dago arraunerako zale-tasunik. Aurrera egin badugu, borrokan ibili den talde txiki bati esker izan da. Momentu honetan 100 jarraitzaile izango ditugu gehien jota, ez ditugu estropadetara joateko bi autobus betetzen. Lehen mailan dagoen talde batek jarraitzaile gehiago merezi ditu, balkoietan banderak jartzea behintzat.

«Erakusketa eta hitzaldia antolatu ditugu urtarril eta otsailerako»

—50 urte ez dira urtero betetzen.
—Abenduaren 8an egun handia ospatu genuen frontoian. Oso giro polita egon zen: arraun-ergometro txapelketa, omenaldiak, triki-poteoa... Urtarrilean erakusketa bat egingo dugu Goñi Portalen, taldeko argazki eta materialekin. Otsailean konferentzia bat egin gura dugu, arraunaren munduko jende garrantzitsuekin.



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTENA

URDULIZ

Telefono: 946 761 128

AJURIA
TABERNA

Andrés Cortina 2
ALGORTA





Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobbarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

BEASKOAK IRABAZI DU URDULIZKO ZALDI-PROBA

Nabarnizko Julen Beaskoaren zaldiak irabazi zuen joan den urteko abenduan Urdulizen ospatu zen Iparralde Zaldi-Proba Txapelketaren lehen saria. Goierriko Javi Ugarte eraman zuen bigarren saria eta Asteasuko Olarra Jatetxeak hirugarrena. Beaskoak hain estimatua izaten den burusia eta 700 euro eraman zituen etxera.

BARRIKA PIRAGUA TALDEAK BLOG BERRIA DU

Teknologia kontuetan atzean ez gelditzeko eta bere ekintzen berri eman eta bisitarien iradokizunak jaso ahal izateko, blog berria aurkeztu du Barrika Piragua Taldeak. Honetan, eduki eguneratuak, palariak eta entrenamendu atalak, argazkiak eta bideo galeriak aurki daitezke, beste gauza askoren artean. Adibidez, joan den urteko abenduaren 30ean burutu zuten Butroeko jaitsieraren argazkiak eta kronika aurkituko ditugu. Piraguaren munduari buruz gehiago jakiteko www.barrikapiraguataldea.blogspot.com web gunean sar zaitezte.

GORLIZKO TOPONIMIA JASOTZEKO BEKA

Gorlizko Udalak herriko toponimia jaso eta finkatzeko deialdia zabaldu du. 18.000 euroko beka izango da eta 12 hilabeteko epean egin beharko da. Horretarako, Euskaltzaindiako Onomastika Sailaren eta Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren laguntza izango du lehiaketaren irabazleak.

GORLIZ

“Ura: gaur aurreztuz, bihar izango zaitut”



Txorrotetan ipintzeko zurrusta-haustekoak edo perlizadoreak doan banatuko dira

Gorlizko Udalak uraren erabilera murriztea helburu duen kanpaina jarri du martxan, “Ura: gaur aurreztuz, bihar izango zaitut” lelopean. Honen barnean, bi lan ildo nagusi egongo dira: herritarren sentikortasuna garatzera bideratuta dagoena eta Gorlizko merkatarien lankidetzat lortzea bilatuko duena. Horretarako, makina bat ekintza burutuko dira.

2007ko abenduaren 15ean kanpainari hasiera eman zioten erakusketa batekin. Honetan, uraren erabilera murrizteko elemen-

tuen emaitzak eta erabilera azaldu eta uraren problematika azaltzen da panel batzuen bidez. Bestalde, udaletxean txorrotetan jartzeko zurrusta-haustekoak banatuko dira dohainik. Hauekin batera, etxeetan erabil daitezkeen ura murrizteko elementuen erabilera azaltzen duen gidaliburua banatuko da. Herritarrez gain, erakunde publikoek eta herriko enpresek parte hartuko dute. Hauei, komunetan jartzeko zurrusta-haustekoak eta kanpainarekin bat egiten dutela adierazten duen pegatina banatuko zaizkie. ○

Urt. 1 - urt. 31

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

ERANDIO

- ▶ **Gloria Elena Graciaren pinturak.** Josu Murueta Kultur Etxea. Urtarrilaren 14tik 27ra.
- ▶ **Jubilatuaren elkarteko eskulanak.** Udaletxeko etxabeak. Urtarrilaren 7tik 11ra.

LEIOA

- ▶ **Antzinako jostailuak 1875-1960.** Abenduaren 3tik urtarrilaren 27ra.

GETXO

- ▶ **Lucia Gisasola del Tioren grabatuak.** Erromoko erakustaretoa. Abenduaren 19tik urtarrilaren 4ra.

MUSIKA

GETXO

- ▶ **Lehiotikan eta Captain Nemo.** Txorimalo gaztetxea. Urtarrilak 26, zapatua. 21:00.

ERANDIO

- ▶ **Pergola.** Azoka zaharra. Urtarrilak 13, domeka. 17:30.
- ▶ **Los Palmeras.** Azoka zaharra. Urtarrilak 27, domeka. 17:30.

BERANGO

- ▶ **Impromptu.** Musika klasikoa. Berangoeta. Urtarrilak 3, eguena. 18:00.

ZINEMA

ERANDIO

- ▶ **Zinegoak.** Josu Murueta Kultur Etxea. Urtarrilak 29, martitzena. 20:00.

GETXO

- ▶ **El secreto de Anthony Zimmer.**

▶ **Haurrentzako gabonetako parkea Getxolandia**

Gaztetxoenean gabonetako oporraldian gozatzeko beste aukera bat dugu Getxolandia parkean. Aurten ere makina bat jolas biltzen ditu haur parkeak. Horrela, Areetako geltokiko plazako karpak ludoteka, puzgarriak, ohe elastikoak, scalextrica, eltzea, dragoiak, kangurua, talka-autoak eta barrakak bilduko ditu, besteak beste. Santa Eugeniako karpak, bestalde, berrikuntza bat jasoko du aurten: errokodromoa eta tirolina. Horretaz gain, patinaje pista ere kokatuko dute bertan. Abenduaren 21ean ireki zituen ateak Getxolandia eta urtarrilaren 5era arte egongo da zabalik. Sarrerak 3,50 euro balio du eta horren truke, sei bidaia egiteko aukera dago.

• **Non:** Areetako geltokia / Santa Eugenia • **Noiz:** urtarrilaren 5era arte

Getxo Antzokia. Urtarrilak 11, barikua. 22:00. Sarrera: 2,90 euro.

ANTZERKIA

ERANDIO

- ▶ **Un adulterio casi docente.** Txalo produkzioak. Azoka zaharra. Urtarrilak 6, domeka. 19:00. Sarrerak gonbidapenagaz.
- ▶ **La troupe de Mercedes.** Burbujas taldea. Josu Murueta Kultur Etxea. Urtarrilak 19, zapatua. 19:30.

▶ **Cuatro perras.** Aztiak taldea. Josu Murueta Kultur Etxea. Urtarrilak 26, zapatua. 19:30.

GETXO

- ▶ **Tengamos el sexo en paz.** Luna Ilena. Getxo Antzokia. Urtarrilak 25, barikua. 19:30. Sarrera: 3 euro.

BESTEAK

LEMOIZ

- ▶ **Erregeen jaia.** Armintzako

pilotalekua. Urtarrilak 3.
▶ **Fruta arbolaren inausketaren erakusketa.** Ugarte Aurrekoa baseria, Urizar. Urtarrilak 5, zapatua. 10:30.
▶ **Poteo euskalduna.** Armintzako pilotalekua. Urtarrilak 18, barikua. 19:15.

SOPELA

- ▶ **“Urte barri” ospakizuna.** Udaletxeko plaza. Urtarrilak 1, martitzena. 13:00.
- ▶ **Eriz Magoa.** Kultur Etxea. Urtarrilak 3, eguena. 12:00.
- ▶ **Erregeen harrera.** Urgitxeta plaza. Urtarrilak 5, zapatua. 18:00.

BERANGO

- ▶ **Brotxa lodiz margotzeko tailerra.** Gaztelekua. Urtarrilak 2, 3 eta 4. 10:30.
- ▶ **Erregeen opariak egiteko tailerra.** Gaztelekua. Urtarrilak 2, 3 eta 4. 10:30.
- ▶ **“Kuko, Truko eta Bolenwaider” pailazoak.** Frontoia. Urtarrilak 4, barikua. 18:00.
- ▶ **Erregeei harrera eta txokolatada.** Frontoia. Urtarrilak 5, zapatua. 19:30.

ERANDIO

- ▶ **Umeentzako jarduerak.** Josu Murueta Kultur Etxea. Urtarrilaren 2tik 5era. 11:00-13:00 eta 16:30-19:30.
- ▶ **Graffiti tailerra.** Josu Murueta Kultur Etxea. Urtarrilak 3, eguena. 11:00-16:30-19:30.
- ▶ **Hip-hop tailerra.** Josu Murueta Kultur Etxea. Urtarrilak 4, barikua. 11:00-16:30-19:30.
- ▶ **Breakdance tailerra.** Josu Murueta Kultur Etxea. Urtarrilak 5, zapatua. 11:00-16:30-19:30.
- ▶ **Errege magoak.** Aitzaga. Urtarrilak 5, zapatua. 18:30.
- ▶ **Errege magoak.** Astrabudua. Urtarrilak 5, zapatua. 18:00.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA
Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
Tel. 94 668 15 51
Faxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Antzinako jostailuak

Kultur Leioan antzinako jostailuen erakusketa egon da ikusgai eta Olentzerok ekarritako opariak etxean zehar sakabanatutako dauden honetan, orduko eta garaiko jostailuen arteko desberdintasun itzelaz konturatu gara. Garai batean, jostailuei umeok eransten genien irudimenak milaka olgeta modu sortzen zituen, garaiotan imajinazioari bideak ixten dizkieten milaka jostailu dituzte haurrek. Ume ginenean ez genuen asperdura berbaren esangura ezagutzen eta kalea zen gure jostalekua, ume direnek etxea dute olgeta-leku eta, sarritan, asperdura "lagun ikusezin".

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Elurretan

Itsasaldean ere egiten du elurra. Baina itsasoak eta elurrak oso gutxitan elkar ikusten dutenez, bada liluragarria iruditzen zaigu haien topaketaz gozatzea. Ostera, berotasunetik begiratuta egiten zaigu eder elurra, baina hoztasunaren menpe bere zurtasuna beltzegi edo gorriegi dakusagu. Bitasun horren jabe da elurra, maitasun zein gorroto; baina, batean zein bestean lilura sorrarazten digu! 1945ekoek ere antzeko gogoeta egingo ete zuten?

[berbetan]

Bi buru. Baten eskuak eta bestearen begiak. Eta ametsen trenera igo eta gailurrera iristeko beldur barik, bihotzak gogoz beteta eta tontorra erdiesteko goranzko bidean oinak lurrari lotuta eta pauso imoz. Hala, Unai Elorriagaren (Algorta, 1973) *SPrako tranbia* (Elkar, 2001) saritutako nobela pantaila handira eroan du Aitzol Aramaio (Ondarroa, 1971) zine zuzendariak. Ondarrutarrek 20tik gora sari eskuratu zituen *Terminal* film laburragaz eta *Un tranvia a SP* da bere lehenengo film luzea. Algortako Portu Zaharrean eta *Alemanen* etxea deiturikoan, Gortizen, Bilbon... ibili ziren ziren grabatzen iragan irailean. Laster estreinatuko den filman izen handiko aktoreek hartu dute parte, berbarako: Hector Alterio, Daniel Bruhl, Julieta Serrano, Ramón Barea, Barbara Goenaga, Mikel Albisu, Iñake Irastorza, Mikel Laskurain edota Klara Badiola. UKkooi bi buruak *Nork-Nori-Zer-en* ipintzea otu zitzaigun, eta horra hor emaitza:

Aitzol Aramaio

SPrako bidean, tranbia zaharrean

Testua: **Unai Elorriaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zelan hasi zinen zine munduan? Eta zergatik zine munduan sartu? Zelako pelikulak ikusten zenituzten txikitan...

—Txikitan domekatan joaten ginen zinera, auzo guztia joaten ginen Ondarroako zinera. Asko gustatzen zitzaidan zinea, baina inoiz ez nuen pentsatu guretzat zela. Asko gustatu eta bitan ikusten genuen pelikula... zinea gura genuen ondo pasatzeko, ez bakarrik pelikula ikusteko, batzuetan pantaila gainera altxa eta hantxe zorroagaz itzalak egin eta ezpata-etzpatan jolastu eta halakoxe gauzak egitera... Baina sekula ez nuen pentsatu nik zinea egitea. Baina behin gauza bat pasa zitzaidan eta esan nuen “Hauxe kontatu gura dut”, eta esan nuen “Zelan kontatuko dut?” Ba, zinea egingo dut, pelikula bat egingo dut; eta pentsatu genuen film laburra egitea eta egin genuen; Roberto Mosoren ipuin batean oinarritutako film bat izan zen. Ondo irten zen eta jarraitzea erabaki genuen.

—Hori lehenengo lana izan zen... baina aurretik zelako ikasketak egin behar ditu zuzendari batek?

—Bai, Andoainen egin nituen ikus-entzuzko hiru urteko ikasketak. Gero, Mikel Laboaren kontu bategaz hasi nintzen, Joseba Sarrionandiaren “Lili bat” poemari oinarritutakoa. Lagun batek galdetu zidan letra horrek niretzat zer esan gura zuen, eta nik erantzun nion, ba... strip-tease bat zela niretzat, neska baten strip-tease bat dela, hostoz hosto jaus-

tea... Eta nik esan nuen: zer gehiago gustatzen zait niri asko eta... itsasoa!, eta bueno, neska baten strip-tease bat eta itsasoa nahastu nituen. Eta hortik hasi nintzen. Gero Lekeitioko festibalera joan nintzen, eta ondo, gustatu egin zitzaidan; eta hasi nintzen bideo-klipak egiten, gero telebistan ere ibili nintzen sasoi batean Eva Argiñanogaz eta *Lo Que Falta*-n. Sartu nintzen era inkontziente batean, niretzat ez da inoiz izan helburu bat pelikulak egitea edo zineasta izatea, eta oraindik ere ez dut pentsatzen.

—Zerbait kontatu gura, eta zelan kontatu? Zinean topatu zenuen bidea...

—Bai, ereminta bat legez erabili izan dut. Zerbait gura nuen kontatu eta egin, egin nuen.

“Sartu nintzen modu inkontziente batean, niretzat ez da inoiz izan helburu bat pelikulak egitea”

—Zine munduan, pelikula zein laburmetraia egiteko pertsona asko behar da, eta lanbide askotakoak eta, zergatik aukeratzen da zuzendari izatea, hau da, azken batean, istorio bat kontatzeko gidoilari ere izan zintezke, edo, ez dakit, argazki-zuzendaria... Zergatik zuzendari?

—Neuk neukalako kontatzeko istorio bat eta era zuzenena zen neuk kontatzea horixe, egin nezakeen fotografo legez ere... Baina ez dakit,

pentsatzen dut, gainera, azken finean zuzendari batek pixka bat denetarik dakiela, baina azkenean ez dakit ia ezer, ezta? Pixka bat badakizu igual fotografiaz, edo soinuaz, edo gidoi edo aktoreei zuzentzen... baina azkenean ez dakizu ezer ere. Eta pixka bat horixe da neurea... fotografia apur bat banekien, baina beste gauzetatik ez nekien. Eta bueno, azkenean, neuk neukan kontatzeko zerbait, beste norbaiti esan ahal nion zuzentzeko, baina banekien... Adibidez: nik amodiozko istorio bat kontatu nahi nuen, hil zitzaidan pertsona batena, eta nik banekien hori neuk kontatu behar nuela, heroinomano bat zelako eta istorio hori beste norbaiti eman izan banio, igual egingo zuen zine sozialago bat, eta nik ez nuen hori egin nahi, nik maitasunez betetako

planoak nahi nituen, asko mimatu... nik pertsona horrenganako sentitzen nuena azaldu. Eta horrexegatik pentsatzen nuen neuk egin behar nuela hori.

—Hor kontatu duzu *Terminal* filmaren gainekoa, maitasun istorio hori delako *Terminal*-en kontatzen dena; eta ikusi ez duenari ikusteko eskatzen diogu, berandu baino lehen... Bestalde, gero liburu zoro bategaz egin zenuen topo, liburu hori txiki



bat... Zelan topatu zenuen, zelan etorri ziztaizun eskuetara?

—Ez dakit ba, non hartu nuen... Bilbon hartu nuela uste dut. Joseba Sarrionandiak esan zuen momentu batean... Kirmen (Uribe) eta zeu zinetela... gustatzen zaizkion idazleak... Eta nik Kirmen ezagutzen nuen, oso lagun daukadalako, baina zeu ez zintudan ezagutzen horrenbeste. Baina, ez dakit hortik datorren kontua, uste dut baietz.

—Hori guretzako gauza handia izan zen, Joseba Sarrionandiak guri buruz hori esatea...

—Bai, uste dut hortik etor litekeela kontua. Sarrionandiak esan badu, gizon honek ere interesatea izan behar du. Gero irakurri nuen *SPrako tranbia*, eta lehenengo momentutik sentitu nuen kristoren emozioa, isilik lotu nintzen, emozionatuta sentitu nintzen nobela amaitu eta gero. Eta oso identifikatuta sentitu nintzen bai pertsonaiakaz bai egoerakaz; dana-gaz, istorioagaz... Oso hur sentitu nituen, neuk ere harreman handia daukat jende nagusiagaz, gazteakaz ere bai, baina... Eta gero kontatzeko erak dakarren positibotasuna heldu zitzaidan barruraino, sentitu nuen... *“la ostia!”* zela nobela bategaz hori sentitzea. Ez zen nobela bat, niretzat hori da *Tranbia*-n handitasunetako bat, ez dela nobela bat, adibidez, barrea eragiten dizuna, edo negarra eragiten dizuna, baizik eta beste leku batetik sartzen zaizun gauza bat, biriketatik sartzen den nobela bat, eta amaitu eta gero isilik lagatzen zaituena; beste era bateko sentimendu bat da sorrarazi zidana, irakurri ditudan beste nobela batzuek beste gauza batzuk eragin dizkirate, negar edo barre edo... Baina hau beste era batetik sartzen da, eta horri hain handi iritzi nion! Eta eurek (pertsonaiek) duten jarrera, heriotza zelan hartu... Zure lagun batek esan zuen, uste dut Harkaitz Canok, heriotzari tirata txibi-beltzak aterarazi zenizkiola... Niretzat handitasuna horretan datza.

—Eta uste duzu pelikula bat egin litekeela horregaz? Batek baino gehiagok esan dit: “Inposiblea da hemendik pelikula bat ateratzea!”... Eta zuk hasieratik ikusi zenuen.

—Bai, bai. Kristoren pertsonaiak zeuden hor, kristoren istorioa eta kontatzen zena sano inportantea zen, berba txikiakaz baina gauza oso sakonak eta sentimenduzkoak, zentzu handikoak... Neuri interesatzen zaizkidan gau-

zak, bizitzaren zentzuarenak... Eta gero oso librea da, gustura dauden pertsonaien istorio bat da.

—**Baina ez dauka tramarik. Eta zinean trama nagusia, hari nagusia ezinbestekoa dela diote...**

—Bueno, baina badauka. Azken finean, gizon baten heriotza da, *Tranbia* hori da. Eta zenbat pelikula daude gizon baten heriotza kontatzen dutenak: *Mar adentro*... Nik horrela hartu nuen, gizon baten heriotza, hori da esentzia,

“Tranbia biriketatik sartzen zaizun nobela bat da, amaitu eta gero isilik lagatzen zaituen horietakoa da...”

eta gero berak zelan besteak kutsatzen dituen. Baina bai, badauka bere zailtasuna, asko pentsamenduak zirelako: bat-batean Mariak trenea hartu eta mundu guzitik ibiltzen zen, eta niri asko gustatzen zitzaidan... Niretzako zoragarria zen; izan ere, Mariak emozio bat sentitu zuen behin eta emozio horren bila abiatu zen, niri barruraino ailegatu zitzaidan hori... Baina, hori zelan kontatu... Behar dituzu trenak!!! Beste pelikula bat egin behar duzu, eta ez dakit zenbat milioi gehiago! Eta trenak... Maria Parisera eramanez edo ez eramanez... Hor ibili ginen burua hausten, ezta? Gidoian sartu behar genuela, baina... hor beste trama bat sortzen zen eta... Eta iruditu zitzaigun *Tranbia*-n interesgarriagoa zela Lucasi jarraitzea.

—Behin liburua aukeratu eta gero zelan hasi zinen, esate baterako, aktoreak bilatzen?

“Errodaje garaian momentu batzuetan Algorta guztiz itxi genuen, kaleak itxi... jendea ez zen kexatu! Itzela izan zen!”

Zelan aurkitu zenituen aktore handi horiek? —Lucasen kasuan, oso berezia zen pertsonaia, ze oso gizon bitxia da, eta oso gutxi egin dezake halako edadekoak... eta begietan duen —gorputzean ere— ume puntu hori, eta “brillu” hori, ume “brillua”, baina era berean tristea ere badena, hori duen aktore oso gutxi dagoela iruditzen zait. Eta lehenengotik pentsatu nuen Hectorrengan (Alterio). Gero beragaz beharrean egonda konturatu naiz sekulakoa dela, ze

umila den eta zenbat lan egiten duen, eta pertsona legez ere eduki dugun harremana itzela izan da. Motza egin zait hartu-eman! Gero, Danielen (Brühl) kasuan, berba asko egiten duen gizon nagusi baten alboan dago, eta bera gaztea da, isila... Baina kristoren aktorea izan behar duzu horretarako bere, Hector Alterio bati eustea... Aktore on bat badaukazu baina bestea makala, bada mahai baten legez, ezta? Hanka bat motzagoa badu, asko mugituko da. Nik Daniel ezagutu nuen *Good bye Lenin*

pelikulan eta iruditu zitzaidan kristoren aktorea zela, eta gogoratzen dut gustatu zitzaidalako atzerritarra zelako, baina ez dakizu ziur nongoa den, kanpoko mutil bat da, kanpotik, apartetik dator... Eta Danielegaz akordatu ginen eta bera oso prest agertu zen. Niretzat oso eskuzabala izan da, bera den aktoreagaz horrelako paper bat onartzea, ia pelikula guztia isilik emateko! Eta gero Barbara Goenaga, ba, berdin, Barbarak dakarren haur puntu hori, oso aktore gutxi dakarte, eta horrelako aktore ona izatea... Eta gero Julieta Serrano ere bai, berdin; bere begirada oso aktore gutxi dute, begirada triste hori. Eta ezin aipatu barik utzi Albizu, Ramon Barea... Kristoren aktoreak dira, eta...

—Danakaz akordatzea ez da erraza...

—Bai, baina denei esan behar zaie hori, bestela jeloskor ipintzen dira... (bromaz).

—Eta errodajea zelan joan da? Eta ze anekdota dituzu kontatzeko? Batzuk egongo ziren!

—Errodajea izan da, ba pentsa, behar bat legez, bueno, behar bat ez da izan baina... Ni goizero esnatzen nintzen kristoren gogoakaz beharrera joateko, eta hori lankide guztiek esan didate. Beti esaten da errodajea hartu-eman gogorra egoten dela, baina, egia esan, oraingotan oso hartu-eman ona egon da, eta gero lan-

kidetza handia ere bai: nik argi esan nien zer nahi nuen eta gero eurek eman dute, bakoitzaz hazi egin da asko. Sormen handikoa izan da, oso sortzailea, jendeak asko parte hartu duelako prozesuan bertan... Eta gero gure arteko harremana... itzela izan da! Bai geu talde legez, baita Portu Zaharrean eta Algortan ere ikustea jendeak zelan hartu duen errodajea, Portu Zaharrean jendeak pastelak eta ekartzen zizkigun! Bai, egun batean kristoren euri zaparrada bota zuen, denok busti-busti eginda eta hara non datorren Portu Zaharreko bizilagun bat pastelagaz, pena ematen geniola... Egunero-egunero, errodajea amaitzen zenean han amaitzen genuen, Portu Zaharrean, eta eurakaz eduki dugun hartu-eman itzela izan da, baina baita goiko partekoakaz ere... Momentu batzuetan Algorta itxi egin genuen, kaleak itxi eta hemendik ezin da autorik pasatu... eta kexarik ez! Itzela! Nik kontu horiek ez ditut ezagutzen hainbeste, baina talde teknikokoak, kristoren talde teknikoak ere eduki dugu, harrিতa lotu ziren zelan Algortako jendeak ez zuela protestatzen eta! “Hemen ez aparkatu” kartela ipini, eta inork ez zuen aparkatzen! Harrিতa! Baita Sustrai tabernakoakaz ere. Harrিতa zeuden jendea zelan zegoen pelikulari emanda. Ni, egia esan, oso maitatua sentitu nintzen.

—Bai, bai, neuri ere zelan zabiltzan galdetzen dit jendeak, laster bueltatu beharko duzu...

—Bai, bai, bai. Ni harantz laster, laster joango naiz.

—Muntaketa eta postprodukzioa egin berri duzue, musika ere erdi sartuta dago... hori pelikularen erdia da, edo gehiago; zelan joan da hori guztia?

—Bai, hori ere beste prozesu bat da. Hirugarren pausoa-edo da hori: lehenengo gidioa, ostean errodajea eta hirugarrena muntaketa. Eta oso-oso ondo joan da muntaketa, muntatzailea oso ona izan delako, bera da *Solas* edo *13 rosas* egin duena; sentiberatasun handiko gizona da eta elkari ondo ulertu diogu. Egia esan, ez zegoen muntaketa handirik, nik errodatu dudalako plano-sekuentzia askotan eta hor nahiko lotuta zegoen dena, baina oso ondo. Gero, musikarena, hor nabil Bingen Mendizabalegaz batera, euskal musika asko sartu gura dudalako: ezpata-

dantza, arin-arina, Hertzainak-en kanta bat... Baina ondo sartu gura dugu, ez sartzearren sartu. Nik lehenengo aldiz muntaketa ikusi nuenean, irudiak bakarrik, eta zuzenean grabatuta zegoen soinua bakarrik, hamar minutuz egon nintzen isilik; eta lehen esan dudan legez, zelan nobela biriketatik sartu zitzaidan, bada hori ere berdin, biriketatik sartu zait pelikula. Isilik egon nintzen eta uf!, izan zen gauza bat... Ni eta produktorea geunden, eta berak bere esan zuen “Joe! Uf! Ostra! Hau handixe da, txo!...”. Eta egia esan, ni oso gustura nago, oso-oso gustura.

—Jakingura da, Hertzainak-en zein kantu? Esan baliteke...

—Kantaren izena ez dut ondo gogoratzen: “Hertzainak” edo “Hertzainak gara gu”. Musika kontuetan-eta Josu Zabala ere hor dabil: Danielek, Marcosen paperean, trikitixa jotzen du, eta Danielek ez dakenez ba Josu Zabalak jo du; Josu Zabalak, nire ustez, oso

“Jendeak ikusi dezan gure proposamena zein den, jarrera kontu bat dela, bizitzeko jarrera bat...”

era berezia dauka trikitixa jotzeko, eta bera aukeratu genuen, bera ere oso pozik ibili da. —Orain estreinaldia besterik ez da falta. Hori da hori, egun gutxitan erabakitzen da urte askotako lana; zelan hartuko duzu hori? —Nik, nigatik, iruditzen zait oso ondo irten-go dela, ze pelikula ona da eta gero nik uste dut zortea alde daukagula. Gero, hor banaketa, distribuzioa eta zelan joango den... Hala eta guztiz ere ez dakit zelan den, ez dakit zelan funtzionatzen duen horrek.

—Hiru astez eman eta ikuslerik ez badu lortzen, desagertu edo isildu egiten da...

Aukerarik ere ez diote ematen batzuetan. —Bai, baina Ibilaldia-eta moduan, ezta? Urte gutzian behar egiten duen jendearen ilusioa hor dago, eta gero egun guztia negarrez... Baina bueno, arriskatu behar dugu, ez? Geuk egin nahi duguna egiten. Gu pozik gaude, ni pozik nago egin dudana beharrez, nahi izan dudana kontatu dut, eta ekipokoakaz ere pozik gaude... Eta horixe da niretzako handiena; gero, bestea ere bai, nik nahi dut ondo irtetea dena eta ahal den jende gehien joatea...

Eta gehienbat ere, jendeak ikusi dezan gure proposamena zein den; jarrera kontu bat dela, bizitzeko jarrera bat, bizitzeko jarrera ona badaukazu zure bizitzan, azkenean zoriotsu izango zarela. Hori izan da, azkenean, kontatzen saiatu garena.

—**Eta estreinaldia egin gura zenuen euskaraz eta gaztelaniaz, posible den galdetu zenuen...**

—Bai, hori kontua banatzaileagaz gabiltza berbetan, zineetan euskaraz edo “kastellanoz” egin. Baina, badakizu, hor ez dugu guk agintzen. Guk pelikula behin amaitu eta gero, banatzaileak hartzen dizu eta esaten dizu “Ekarri hona, zuk egin duzu zure beharra eta orain...”. Guk presio apur bat egin ahal dugu, baina horiek beste begi batzuek ikusten dute, diferente ikusten dute dena.

—Denborak esango du...

—Bai, hori da.

—Amaitzeko: aurrera begira zer? Beste

nobela bat, gidoi original bat...

—(Putz egin ostean) Ez dakit ba. Istorio on bat gustatuko litzaidake kontatzea, ahal bada positiboa. Baina ez daukat ezer ere. Ez dakit... Bilatuko dut... baina bueno, oraingoz daukadanagaz nahikoa daukat, ze azkeneko momentura arte egon behar duzu pelikula-gaz, pixka bat azkeneko momentura arte dena kontrolatu behar duzu. Baina bai, gustatuko litzaidake jarrera on bateko pelikula bat kontatzea, pelikula alai bat kontatzea. Eta gero, nahi dudana istorio bat izatea, ukitzen nauena eta barruan sartzen zaidana; eta gero, ahal dena, noski. Nik, egia esan, inkontzienteki egiten dut, nire prozesua inkontzientea izan da, ez da izan nik zuzendari izan nahi izan dudala; horregatik, ez dakit gero zer egingo dudana! Ikusiko dugu, bizitzak esango digu... Zoriotsu izan gutxi gorabehera (barreak), eta beste guztia... hor utziko dugu. —Bide ona hartu duzu eta...

—Bai, bide polita da. Eta ikusiko dugu hemendik aurrera... Baina, oraingotik ez dakit ezer ere. ○



Tranbia Getxon

Irailen zehar denon ahotan ibili den gaia izan da: “Unai Elorriagaren *SP* *prako Tranbia* nobelan oinarrituta pelikula egiten dabilta herrian”. Euren tramankuluak aldean, aktoreak, teknikariak, makilatzaileak eta pelikula bat egiteko beharrezkoa den gainerako fauna guztia herriko bazterretan filmaketa lanetan ikusi izan ditugu. Lan horren guztiaren lekuko David Herranz argazkilari algortarraren kamera izan da.

Argazkiak: **David Herranz**







I

Iñaki Bixitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Tellexe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Tellexe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Filmak euskaraz bikoizteko

Aurtengoa eta datorrena kontuan hartuz, **800.000 euro** emango ditu Jaurilaritzak



Heroes telesailaren kartela

Zine gehiago + Euskara gehiago egitasmoa ipini du martxan aurten Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak. Horren barruan, dagoeneko *Heroes* telesailaren 23 atal eta zortzi film euskaraz bikoiztu dituzte edota azpituak ipini dizkiete. Aurten egiteko horretara 400.000 euro bideratu dituzte eta hurrengo urtean ere gutxienez kopuru hori ematea aurreikusten du Jaurilaritzak, horrenbestez, bi urtetan 800.000 euroko diru laguntza zuzenduko dute zinea euskaraz gozatu ahal izateko. 2008 amaieran 40 pelikula euskaraz bikoiztuta egotea espero dute. Aurten euskaratu dituzten filmak hauek dira: *Number 23*, *Fur*, *Arthur and the Minimoys*, *Retrato de una obsesion*, *Casandra's Dream*, *88 minutes*, *The Contract* eta *Rob B. Hood*.

Zine gehiago + Euskara gehiago ekimena Jaurilaritzak eta Aralarrek hitzartutako emendakin baten bitartez gauzatu da, eta Kultura Sailburu Miren Azkaratek azaldu duenez, "Euskarazko produktuak izatea eta

horien kontsumoa eta zabalkundea DVD zirkuituetan bultzatzea da helburu nagusia". Izan ere, ekimenaren bitartez bikoiztutako filmak DVD euskarrian merkaturatuko dira alokairuan edota salgai ipintzeko. Hala, produktu horiek EITBren laguntzaz zabalduko dituzte. Bestalde, euren filmak euskaraz bikoizteko baimena eman dute dagoeneko bost ekoizpen-etxe entzutetsu eta erraldoik: *Universal*, *Pictures*, *New World*, *On Pictures* eta *Filmmax*.

«2008 amaierarako 40 film euskaraz bikoiztuta egotea espero du Jaurilaritzak»

Ekimena eskertzekoa bada ere, zalantza batzuk eragiten ditu, adibidez: zein motako filmak bikoiztuko dituzten, edo zein irizpideren arabera erabakiko duten zein film bikoiztu (zein ez); edota, eztabaidagai izan liteke, ia ez litzatekeen hobe laguntza hori euskal zinegintzan inbertitzea... o

Konter, lan berria kalean

Frekuentzia hutsa, heavy hardcore estilotik edaten duten 11 kantuz osatutako diskoa



Konter talde algortarraren kontzertu bateko irudia

Taldearen hazia 1998an landatu zuten, eta lehenengo kontzertuak 2000ko urritik 2001eko urtarrilera eman zituzten. Alabaina, taldekideen artean aldaketa ugari izan ditu urteotan Konter-ek, gaur egun Algortan erne den taldearen musikariak ondorengoak dira: Llona (kitarra eta ahotsa), Asier (kitarra eta ahotsa), Jagoba (baxua eta ahotsa), Nikola (bateria) eta Torro (ahots nagusia). Konter deitutako maketa aurkeztu zuten lehenengo, eta lehenengo diskoa 2005ean atera zuten, *Aro Berria* izenburupean. Hastapenetan beraien musikak heavy euskaldunaren estiloari jarraitzen bazion ere, gaur egun euren doinuek metal hardcoretik hurbilago daude.

Orain dela gutxi argitaratu dute bigarren diskoa, *Frekuentzia hutsa*. Baga-Biga estudioetan grabatu dute, eta oraingoan, Ideiak bultzatuz Zornotzako diskoetxe txikiaren ekimenez merkaturatu dute. Unai Bergarak diseinatu du azkenengo disko honetarako CDaren azala, eta dagoeneko salgai dago 10 euroko prezioan. *Frekuentzia Hutsa* lana 11 abestik osatzen dute eta dagoeneko hainbatek zuzenean entzuteko aukera izan du, hiruzpalau kontzertu eman dituzte eta. Hurrengo zuzeneko emanaldia 2008an dauka Konter-ek, Durangoko Plateruena kafe antzokian urtarrilaren 18an (20:00). o

Informazioa: www.myspace.com/konter

diskoak

Argiak
Ken zazpi
Oinuka



Eñaut Elorrieta abeslariak berak dioenez, british-pop eta Amerikako pop-rock indartsuaren ukituak ditu disko berriak, baina batez ere, kantu eta melodia itsaskorren bizitasuna du. *Argiak* deituriko diskoa Elkar estudioan grabatu eta AEBetako Los Angelesen nahastu eta masterizatu dute.

Arazi
Noizean Behin
Baga biga



Noizean Behin taldea rockaren alderik indartsuenagaz datorkigu, beti ere melodiari tarte handia utziz. Hausnarketaren eta kontzeptuaren bila dabil *Arazi* lana. Batzuetan heavyaren bidea hartzen badute ere, rock gordina eta pisutsua da nagusi; metala azken finean.


10 urte
Des-Kontrol
Baga biga



Arrasateko taldeak bere hamargarren urteurrena gogoratzeko hamaika abesti ezagunen bertsioak dator kaleratutako CD berrian (Zakarrak, Blitz, Cock Sparrer, Puñetazo, Iskanbila, Social Distortion, Rip, Rancid, Joe Strummer). Beti punka, street-punka eta oil erritmoak landuz. DVDan berriz, taldearen bizitzari erreparatu arina egiten dio.

diskoa >

Handitzen, handitzen



Pasa den urtean *Txikia* izanik umeentzako kantu-bilduma plazaratu zuen Elkar argitaletxeak. Diskoak izandako arrakasta dela eta, aurten haren osagarri lakoa izan litekeen *Handitzen, handitzen* diskoa argitaratu dute, "hainbat egilerengandik heldutako haur-kantak bilduz, haurra bere osotasunean harrapatzen eta erakartzen duten kantuakaz". Guztira 19 kantuk osatzen dute dagoeneko salgai dagoen lan berria eta 14 euro inguruko prezioa dauka.

Kontzertuak >

Piperrak-en agurra

Bira labur baterako bakarrik bilduko zirela adierazi zuten hasieratik, agur hitza beteko dutela dirudi, agur kontzertua aurkeztu dute eta. Durangoko Landako gunean izango da urtarrilaren 19an (19:30etik aurrera). Gainera, luxuzko gonbidatuak izango dituzte Piperrak taldekoek azkenengo kontzertuan, hurrengo taldeek joko dute eurakaz batera: Segismundo Toxicomano, Lendakaris Muertos eta Manolo Kabezabolo. Horrez gainera, zuzeneko emanaldi horregaz zuzeneko CDa eta DVDa grabatzeko asmoa daukate Piperrak-ekoek. Aldez aurretik erosiz gero sarrerek 15 euro balio dute, eta egunean bertan 18 euro.

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikusii!



ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Itzulpenen euskal plazan

Literatura Unibertsala bildumak maizter
berriak euskaldundu ditu

Hainbat eta hainbat biderrez eman dugu orrialdeotan Literatura Unibertsala bildumaren berri. Baten bat aspertuko zen, agian, honezkerok; baina literaturazaleak estimatu dituen esperantza dugu. Euskal sortzaileen gainean izan ohi dugu jarrita ezkerreko begia eta eskumakoa munduko sortzaile esanguratsuenengan. Munduan zehar erdaraz idatzi diren literatura maisulanak euskaratzea da Literatura Unibertsala bildumaren helburua, jatorrizko hizkuntzan irakurtzerik ez dugunean, gaztelaniaz edo frantsesez (batzuek ingelesez) irakurtzea baino, gure hizkuntza gozatzeko aukera eskaintzea, hain zuzen. Eusko Jaurilaritzaren eta EIZIEren (Euskal itzul-

«Bilduma horretatik kanpo
ere hainbat lan esanguratsu
euskaratu dituzte»

tzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkarte) arteko akordio batek ipini zuen martxan 1989an bilduma. Bertako maizter berrienak hauek dira: *Horrela egiten dute emakumeek amets* (Kessmann Taylor; Joxan Elosegia, Alberdania), *Amodio gutunak oinordekotzan* (Lydia Flem; Joxan Elosegia, Alberdania) *Txantxetan ari zara, Tanner jauna* (Jean-Paul Dubois; Mikel Garmendia, Alberdania), *Bizian argitaratuak*



Orhan Pamuk (Istanbul, 1952) *Elurra* itzuli dute

(F. Kafka; Naroa Zubillaga, Elkar) eta *Don ibaiko ipuinak* (Mikhail Sholokhov; O. Martinez de Marigorta eta Roberto Serrano, Elkar). Bilduma horretatik kanpo, *Elurra* ere (Orhan Pamuk; Fernando Rey eta Monika Etxeberria) argitaratu du Elkarrek. Bestalde, berbagai dugun bilduman ez dauden erdarazko maisulanak ere euskaratzen dira, oraintsu argitaratu dira, adb.: *Claude Gueux* (Victor Hugo; Zorion Zamakola, Ataramiñe), *Sommer jaunaren istorioa* (Patrick Süskind; M. Lourdes Oñederra, Erein), *Hogeita lau ordu emakume baten bizitzan* (Stefan Zweig; Edorta Matauko, Igela), *Ilegorriaren emaztea* (Bill S. Ballinger; Xabier Olarra, Igela)... o

Bildumaren zerrenda:
www.eizie.org/Argitalpenak/Literatura_Unibertsala/OrainArte

liburuak



A las ocho en el Bule
Xabier Silveira
Txalaparta

Silveiraren lehenengo liburua. 90. hamarkadako Donostian kokatua. Klandestinitatea, konpromiso politikoa, laguntasuna, drogak eta sexua, protagonista den Arrats gaztearen bizitzan. Arriskuan ibiliko da etengabe, bera eta bere lagunak kale borrokan muturreraino sartuak baitaude.



Txantxetan ari zara...
Jean-Paul Dubois
Alberdania

Kontakizun umoretsu honetan gertatzen dena edonor gerta dakioke. Paul Tannerri oinordetzan etxe zahar bat egokitzen zaio. Orduan hartu du bere bizitzako erabakirik txarrena: bere etxea saldu eta oinordekotza eraberritzen hasiko da. Eraberritze hori infernu txikia bihurtuko zaio.

[kirola]

Zazpi pareta, zazpi kontinente

**Zazpigarrena, ekimenaren azkena, igo dute
Poutarrak, Antartida aldean**



Argazkian, Poutarrak Fitz Roy-n. Getxoko ADN Nautica dendak espedizioa hornitzen lagundu du

Bi milagarren urtea zazpigarren oinordekoa iraganera bidaltzear dagoenean; Pou anaiak zazpigarrena eskupean hartu dute; zazpigarren kontinentea, zazpigarren pareta izan du xede *Antartida 2007* espedizioak.

Eskola garaian Lurra bost kontinentetan banatzen zela irakatsi ziguten, seigarren bat ere egon zitekeen, baina kontinente izateko zuriegia ei zen. Gero, Amerika bitan banatzea zilegizkoa zela ulertu genuen. Gainera, euskaldunok zazpi zenbakiaren hain maitale garenez... Bada horra, Lurra zazpitan zatitzeko hautua.

Banaketa horren alde egin ostean, lurralde bakoitzeko paretarik entzutetsuenak edota deigarrienak aukeratzea izan zen Pou anaien egitekoa. Ondoren, *izena duen guztia omen da* sinesmenari jarraituz, ametsari izena ipini behar zioten: *7 pareta, 7 kontinente*. Helburua hau da: zazpi kontinenteetako 7 pareta esanguratsuenak estilo librean igotzea; aukeraturiko paretak eta horiek eskalatzeko hautatutako bideak ere zailtasun gorenekoak izan dira. Hala, ametsa egitasmo bihurtu zen, egi-

tasmoa erronka, eta erronkak gauzatzen hasi ziren: 2003an *Captain* (Yosemite natura-parkea, Ipar Amerika) eta *Naranja de Bulnes* horiak (Picos de Europa, Asturias) igo zituzten gasteiztar eskalatzaileek, hurrengo urtean *Tsaranoro* (Madagaskar, Afrika), 2005ean *Totem Pole* (Tasmania, Ozeania) eta *Trangoko Izen gabeko Dorrea* (Karakorum, Asia), iaz *Fitz Roy*-ren (Patagonia, Hego Amerika) txan-

«Ohi legez, Jabi Baraiazarra areetarra ere Pou anaiakaz batera joan da Antartidara»

da izan zen eta aurten Antartidarako bidean daude, *Cabo Renart Towers* dutela jomuga. Horretarako Ushuaiako portutik irten, Hornos lurmutur beldurgarria igaro eta Drake itsaso arriskutsuari aurre egin behar izan diote. Bestalde, ohi legez, ondo ezagutzen duzuen Jabi Baraiazarra areetarra ere Pou anaiakaz batera joan da, eta ziur gaude itzultzean argazki ederrakaz liluratuko gaituela. o

Informazio gehiago: www.pouanaiak.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol
moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris.S.L. SERVITEC



- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

☎ 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Jose Mari Esparza > idazlea eta Txalapartako zuzendaria

“Independentzia probatzea da euskaldunoi falta zaigun gauza bakarra”



Argazkian, Jose Mari Esparza

Jose Mari Esparza Zabalegi Tafallan jaio eta gutxira utzi zion espainol izateari, haurtzaroan ez omen zuen espainola izateko argudiorik aurkitu. 36ko Gerraren ikertzaile, Altaffaylla kultur taldeko sortzaileetako bat da. 1989az geroztik editore lanak egin ditu. Egun, Txalaparta argitaletxea zuzentzen du. Bertan makina bat liburu argitaratu ditu, horien artean Algotan aurkeztutako *Cien razones por las que deje de ser español*.

—Zergatik utzi zenion espainol izateari?

—Ni, gehienok bezala, espainol sortu nintzen frankismo gogorrean eta han erakutsi ziguten espainolak ginela, kristauak ginela, birjintasuna zer zen... Urteen poderioz espainol izateari utzi nion kontraesan bezalako prozesu luze baten ondorioz espai: etxean entzundakoa, bizitzen duguna, irakurtzen duguna etab. besterik ez dugu begiratu behar. Zeure ingurua aldatzen doala ikusten duzu eta berarekin zu ere aldatzen zara. Gogoratzen naiz nire familian Espainia zer zen ez zela zalantzan jartzen, hala ere, kontrabandista neukan familia eta ahalegin guztiak egin zituzten soldaduskara ez joateko. Honekin esan nahi dudana da nola nahiz eta espainol familia batean bizi, Nafarroan eta oro har Euskal Herrian, espainolismoa oso ahula zen eta oso erraz trasgreditzen zen, jendeak ez zuen Espainia errespe-

tatzen: ez zuen soldaduska egiten; gaur egun ere, ez dugu jendea ikusten Espainiako banderak ipintzen Nafarroan. Nafarroako konkistatik 500 urte igaro ostean, espainol sentikortasuna oso ahula da. Bestalde, egia da emaitza politikoak badauzkagula, baina hori beste kontu bat da. Esaterako, Espainiako futbol selekzioak ez du Iruñian jokatzen arrakastarik ez duelako.

—Euskaldunon bizi-iraupena bermaturik ikusten ahal duzu?

—Ez. Globalizazioak oraindik ezusteko asko ekarriko dizkigu. Momentu honetan esaten dute hamabostean behin hizkuntza bat galtzen ari dela. Munduan 6.000 hizkuntza daude eta horietatik 2.000 desagertuzat jotzen dituzte dagoeneko. Prozesuak gainera ez du etenik. Hizkuntzak eta kulturak desagertzen ari dira biodibertsitatea eta animaliak

desagertzen ari diren moduan. Horregatik Mulines filosofoarekin bat nator: gaur egun abertzalea izatea ekologista izateko modu bat da. Hori dela eta, mundu mailan nazio mugimendu asko sortzen ari dira.

—Globalizazioa aipatu duzu... Nola azaldu euskaldun horren aurrean?

—Globalizazioak badu alde ona zein txarra. Neoliberalismoak merkatu bakarra egin nahi du, toki guztietako lehengaiez baliatu kontsumitzaileak sortzeko asmoz. Horrenbestez, sistema hori herriek eta kulturek oztopatzen dute. Beste herri batzuetakoek esan dezaketen bezala, euskaldun izatea da globalizazio horren aurrean nortasunez eta duintasunez

«Gaur egun abertzalea izatea ekologista izateko modu bat da»

munduan egoteko era berezi bat.

—Liburuan aipatzen duzun independentzia izango litzateke euskaldunon bermea?

—Bai. Euskaldunok Espainiarekin harreman onak edukitzeko sistema guztiak probatu ditugu eta denek huts egin dute: karlistak Euskal Herria eta *Las Españas* deiturikoa uztartzen saiatu ziren; liberalek ere kale egin zuten beraien estatu federalarekin; Espainia progresista eta goxoa eraiki gura zuen Errepublikak ere ez zuen ezertarako balio izan; ondoren, frankismoak badakigu zer suposatu duen; eta azkenik, oraingo demokraziak huts egin du. Edozein sistema bada ere, euskaldunok beti galdu dugu lurraldetasuna, hizkuntza eta kultura. Independentzia probatzea da falta zaigun bakarra.

—Arrakastarik izan al du liburua?

—Ni pozik nago. Liburua iaz kaleratu zen eta orain seigarren edizioan gabilta. Gai horren beharra badago eta horrelakoak asko atera behar dira. ○

Getxoko Alkatea, GEHITU KIROLERA hitzarmena izenpetu duten elkarteetako ordezkariak eta egitasmoa dinamizatuko duen Bizarra Lepoan elkarteko ordezkariak.

'Kao: sumendiko sekretua' bideojokoa zozketatzen dugu



KAO ordenagailuan erabiltzekoa da, 10 urtetik gorako gaztetxoentzat

Zelan parte hartu zozketan?

Oso erraz, bidali e-mail bat uk@aldizkaria.biz helbidera, subjectean KAO idatzi eta zozketan hartuko duzu parte.

Aurreko zozketaren irabazlea:
Mitxel Sarasketa*

* Saria jasotzeko UKren bulegora goizez deitu:
94 491 13 37

proba ezazu KAO
www.elhuyar.org/kao wegunean



Lamia Jatetxea

Maroko eta Sopela bat eginda



Lamiako lantaldea

Marokoko Fez hirian jaio zen Omar Filali. Orain dela 27 urte etorri zen Uribe Kostara eta, dagoeneko, erabat integratu da herrian. Senideen laguntzarekin, 2007ko ekainaren 22an zabaldu zuen Sopolako Lamia Jatetxea, aspaldiko gura bat baitzen hau. Izena aukeratzeko orduan, euskal eta arabiar kultura kontuan hartu ditu: "Lamia euskaraz eta arabieraz berdin idazten eta ahoskatzen den izen bakarra da. Nire alabetako batek Lamia du izena". Lokala apaintzerakoan, kultura biak hartu ditu kontuan: "Zoko bateko irudiak, hondartzako eta akelarretako argazkiak... etxean garenaren isla da jatetxea: Fez, Sopela eta Euskal Herria".

Menua diseinatzeko, Aitor Elizegi Gaminiz Jatetxeko sukaldari ezagunaren laguntza izan du Omarrek. Honetan ere, euskal eta arabiar kulturaren ukitua nabaritzen da: "Ez ditugu biak

nabastu izan nahi; ez dut fusioa bilatu, osagarri bezala erabili ditut gehienetan". Baratzuri-zopa, begi handiak, Idiazabal arroza eta euskal janaria alde batetik eta tyina, kux-kuxa, kebaba... arabiar jakiak bestetik. Asteazken zehar eguneko menua ematen dute Lamian; asteburuetan berriz, menu bereziak eta karta daukate aukerara, bazkaltzeko zein afaltzeko. Gainera, txitxiburruntziak eta pintxoak prestatzen dituzte zapatu eta domeketan.

Lokala oso handia bada ere, jendez gainera egon da orain arte: "Oso pozik gaude jendearen harrearekin. Marokoko janariarekin galdetzen digute bezero askok". Martitzenetik banikura goizeko 8etatik gaueko 10:30ak arte dago zabalik; asteburuetan gauez ere zabaltzen dute. ○

Landa doktorea 3, Sopela
94 404 99 10

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

GOZOLABEA
GALDARETXE

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gozariak
- txuletoia • makailua
- arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

Asador Goieztzi



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gauez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak
 GETXOKO KIROL PORTUA
 Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
 ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
 T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”
 Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
 T: 430 22 13 T: 460 02 88
 GETXO ALGORTA

Turikaldoi

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
 Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
 T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
 48990 NEGURI 48990 GETXO

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

*herriko pintxorik
 onenak ditugu
 etorri eta probatu!!*

Amezi, 10 | T: 94 460 57 57 - ALGORTA

CAFE
usategi
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
 Denbora gehiegi igarotzen duzu etxe zuloan sartuta. Ondo etorriko zaizu bidaiatxo bat egitea, horrela gauzak beste modu batera ikusiko dituzu. Eguraldia aldatuz doan neurrian gehiago mugitzeko gogoia izango duzu, baita zure lanean ere.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
 Hau marka! Beti eztabaidan zure bikotekidearekin eta oraindik ez zara ohartu ika-mika horiek ez dutela ezertarako balio. Idicia berriak dituen norbait ezagutuko duzu lanean, eta oso proposamen erakargarria egingo dizu.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
 Arriskatzeko unea iritsi zaizu. Berria edo ezezaguna denari beti izan diozu beldurra, ez duzu birritan pentsatu gabeko pausorik eman. Aldatu egin behar duzu. Bizitzari aurre egin behar diozu, honek zu jan baino lehen.

META



(Irailak 17 urriak 16)
 Ez duzu aldatzeko asmorik? Bada garaia helduago egiten hasteko. Horregatik, esaterako, min egin diezun pertsonen azalpenak ematen hastea ez da ideia txarra. Guztiak, onerako, harrituko dira eta zu hobeto sentituko zara.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
 Lehenengo begiradan irtenbiderik ez duten egoerak topatuko dituzu. Baina zure senari jarraituz hasiera batean ematen zutena baino errazagoak izango dira gertakari horiek. Abilezia honi esker jende askorentzako euskarri sendo bilakatuko zara.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
 Emozionalki izugarrizko oreka egoerara iritsi zara, behar zenituen egonkortasuna eta ziurtasuna topatuz. Baina kontuan eduki gehiegizko ziurtasuna edukitzeak jendeak esaten duena gaitzestera eraman dezakeela.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
 Bihotz onegia edukitzeak kalte handia egingo dizu, baina maite duzun pertsona batek lagunduko zaitu. Eta, nor dakiz? Agian, maitasuna ere piz daiteke zuen bion artean.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
 Ez dakit ohartu zaren baina zure bikotekidea bakarrik sentitzen da eta berataz ahaztu zarela uste du koitaduak. Laztan gehiago eskatzen ari da. Denbora larregi ematen duzu bulegoan eta lantzean behin deskonektatzea ez da txarra.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
 Aspaldidanik gaixotasun bat baduzu laster guztiz sendatuko zara. Aurrezteko unerik egokiena ez izan arren, horretaz pentsatzea komeniko litzaizuke etorkizunari begira, badaezpada ere. Lanean sormena oso bizi edukiko duzu.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
 Lan kontuetan maitasunezkoetan baino interes handiagoa duzu. Jarrera hau zure alde erabil dezakezu, jende berria ezagutzeko aukera eskaintzen dizulako. Zure kontra ere itzul daiteke, eta zu bakardadera bultzatu.

IRATZEA




(Abuztuak 18 irailak 16)
 Lan egitea, kalera irtetea, lagunekin geratzea... dena ere kostatu egiten zaizu, erabat nekaturta zaude. Baliteke aspaldi honetan daramazun erritmo biziak kalteordaina pasatu izana. Lasaitasunez aurre egin betebeharre.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
 Zeure buruari gehiegi exijitzen diozu eta horrek presiopean egotera bultzatzen zaitu. Osasunak eskertuko dizu atsedean handiagoa hartzea. Bes-teen laguntza eskertzekoa izaten da, zergatik uko egin?



MUNGIÀ
OKINDEGIÀ



*Algortan badaukagu
 artisauen ogia
 izen eta jatorriz
 da “ogi mungia”.*


*Goizero lortzen dogu
 obispoen guleria
 probatu bada edo ez
 dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
 ALGORTA

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Ipar, orratzak, buruorratzak. 2. Irabazi den lehiaketaren ordaintzat hartzen den ondasuna. Hosto. 3. Oinarizko janari. Frantziako eskuindarren alderdi ohia. Tullioaren ikurra. 4. Baiaeren koipea. Barazki mota. 5. Ustekabeko esaldi bitxi barregarria. 6. Emakumearen hileroko berezko desagertzea. 7. Lizarrako ibaia. Ogi, hitz elkartetan. Eta, ingelesez. 8. Lehen pertsona. Zati. Titanioaren ikurra. 9. (Errep.) Ezkilaren ukaldia. Gipuz., eliza. 10. Ezeztapena. Ez emeak.

Goitik behera

1. Bakartze. 2. Saguak harrapatzeko tresnak edo arteak. 3. Lege hauste handia. Har ezan. 4. Bi. Zoro. Lehen bokala. Bokala. 5. Oti, intsektu jauzkari, nekazariantzat oso kaltegarri. 6. lodoren ikurra. Sabaikaria, mihia aho sabai gogorrera hurbilduz ebakitzen den ahotsa. 7. Galdetzaila. Dauka. Pinu. 8. Bromoaren ikurra. Erraz. Iridioaren ikurra. 9. Artzainen lan eta bizibidea. 10. Zaldiek eta beste abere batzek lepagainean dituzten zurden multzoa. Auhanak, deitorea.

Soluzioak

K	A	R	A	V	A	O	K	U	
V	Z	I	E	L	E	N	V	D	
I	T	L	A	T	A	I	N		
D	N	A	T	O	V	A	G	E	
V	I	S	U	P	O	N	E	M	
A	V	D	I	A	L	T	E	R	A
V	Z	V	A	R	A	L	U	M	
I	M	T	R	P	R	O	G	I	
S	A	R	I	A	O	R	I	S	
I	S	K	I	L	I	N	B	A	

asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- Hertzaina (hatzez)
- Abeslaria
- Esperantzara kondenatua

> Aurrekoaren erantzuna: Abel Barriola
> Irabazlea: **Itziar Zarraga ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

•Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



•Freexkue liburua

www.argia.com



ARANTZA SALABERRI TXIKI UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Escuela Vasca, 1935

Aurtengo 113. zenbakian *Flashback* sail honetan “Escuela Vasca, 1935” izen bereko artikulua agertu zen, baina hura mutikoen argazkia izan zen; oraingoan, berriz, neskatoena. Basagoiti etorbideko 76an zegoen eskola hau eta honen moduko beste bat Alangon. Ikasle bakoia 5, 7’50 edo 10 pezeta ordaintzen zituen, bakoitzak ahal zuena. Eskola honetan bizi izandako gertaera interesgarri bat kontatu digute bertan egondako batzuek. Behin ikuskatzailea eskolan aurkeztu zen abisatu barik; beharbada apropos eginda. Ikasle guztiak zirkuluan eta berak, erdian jarrita, bat-batean zera galdetu zien:

Ikuskatzaileak: *¿Cuál es vuestra patria?*

Neskato batek: *Euskadi.*

Ikuskatzaileak: *¿Quién te ha dicho eso?*

Neskato batek: *En casa.*

Ikuskatzaileak ez zuen ezer gehiago esan eta alde egin zuen. Alangoko beste eskolara joango zen ondoren baina hangoak erantzun egokia emateko “prest” zeuden, izan ere, Luke andereñoak (“Andera” deitzen zioten) segituan mutiko bat bidali zuen hara ikuskatzailearen etorriaren berri ematera. ○

Goian: Mertxe Mintegi, Ana M^a Castaños, M^a Delia Tejada, Begoña Aretxabala, Luke Sagastasola (Ermuko andereñoa), Edurne Basabe, Ermíne Zarragoitia, Tere Mintegi.

Erdian: Rita M^a Gonzalez, Begoña Munitis, Arantza Salaberri “Txiki”, Marian Garate, Lopez Heredia, Pilar Estankona, Miren Terese Zabala, Agurtza Ibarzabal, Ikerne Elorriaga.

Behean: Lupe Velez, Karmele Elorriaga, ?, Irene (?) Zulueta, Josune Albizu, Josune Etxebarrieta, Josune Olabarria, Bengoetxea, Ignacia Bengoetxea, Agurtza Lauzirika, Ana M^a Uriarte (2.etik 8.era, ez dira eskolakoak; oso txikiak ziren baina hurbil bizi zirenez, argazkirako etorri ziren)



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

AITOR MENDILUZE > Gipuzkoako bertsolari txapelduna

“Ez dut historiako pertsonaiarik miresten, onenak iristekoak dira beti”

Testua: **Ander P. Goikoetxea**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Neure burua esango nuke... bertsotan *todoterreno*.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Nire bizitzako filmarekin nahiko lan badaukat.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Ez daukat horrelako inor. Pentsatzen dut onenak iristekoak direla beti.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Lo gutxiegi egitea.

Aitor dezakezun bizio bat.

Irakurtzea beharbada, denbora gutxi eskaintzen diot, baina bestela ez dut horrelako bizio handiegirik.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Euskal Herria hobeto ezagutuko nuke. Ezagutzen dut baina beti saiotik saiora eta presaka. Denbora gehiagorekin ezagutuko nuke.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzaizuke jardutea?

Ez dakit, baina hau ez izatekotan erabat ezberdina den zerbaitetan.

Zein da zure ametsetako bat?

Zahartzen naizenean atzera begiratu eta lasai egotea.

Gaua ala eguna?

Aukeran: eguna.

Irakurri duzun azken liburua?

Oraintxe hasita daukat *A las ocho en el Bule*, Xabier Silveirarena.

Eta ikusi duzun azken filma?

Buff! Ez naiz aspaldian zinera joan; denbora gutxi daukat zinemarako.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Nire lagunik gabe.

Euskal Herriko txoko kuttuna?

Euskal Herria bera da txoko kuttun bat. ○

LABURREAN—Aitor Mendiluze 1975eko azaroan Andoainen jaio zen eta esan daiteke bertsogintzaren inguruan eman duela bizitza guztia. Ingeniaritza ikasketak egiten ibili zen, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko eragilea izan da eta orain ahozkotasuna irakasten ari da eskolarik eskola. Euskal prentsan kolaborazio batzuk ere egin izan ditu. Gaztea zelarik izan zituen lehen hartu-emanak bertsoakaz. Pixkanaka-pixkanaka goi mailako bertsolaritzan lekua egiten hasi eta birritan heldu da finalera Txapelketa Nagusian. Gipuzkoakoan ere, beste hainbatetan heldu da finalera eta ospatutako azkena irabazi zuen andoaindarrak.


Irakurleen Txokoa Literatur Solasaldiak

Hilabetean behin elkartu irakurritako liburu bati buruz aritzeko, nahi?

2008ko otsailerako: Uxue Alberdi, Aulkia elurretan (Elkar)

eman izena, posta elektronikoa eta telefonoa

leioa



izena emateko edo argibideetarako:

liburutegia@leioa.net

94 607 25 74

literatura

